

Kultura

Ganorabakuek: “Hamabost kanta sortu ditugu urtebeteen,
eta amaitu barik dauzkagun beste hainbat ere bai”. > 11



Durandog, gizarte oreka bila

Txakurrentzako guneak eskatzen ezagun egin zen Durandog.
Dagoeneko elkarte lez antolatu dira, eta asmo berriak dituzte.
Elkarbizitzaren bila, hezkuntzan lan egin gura dute. > 3



Lehior Elorriaga

Deskontuz eta sorpresaz betetako Gau Irekia Durangoko dendetan, gaur

Gau Irekiaren hirugarren edizioa antolatu dute gaurko, Durangon. 20:00etatik
23:00etara bitartean Dendak Bai elkarteak bultzatuta, denda ugariak deskontuak
eta sorpresak eskainiko dituzte. Ekimenean parte hartzen duten dendek atean
globoak eta alfombra bat izango dituzte. Kaleko giroa pizteko, hainbat ekintza
prestatu dituzte. > 4

*“Bizkaian, Gipuzkoan
eta Araban lege zibil
berdina aplikatuko da,
lehenengoz” > 10*

Gontzal Aizpurua | Abokatu



DHEO DURANGO
Hizkuntza Eskola Ofiziala
Escuela Oficial de Idiomas
Matrikula zabalik
On-line
Irailaren zehar:
1. fasea: 1etik 18ra
2. fasea: 18tik 30era
Urriaren 20an: presentziala
72,36 € ikasturte osoa
www.eoidurango.net
94 620 33 42 – 94 681 66 45



Durango > 2

ELAk prebarikazioa leporatu dio
udalari Enplegu Planean

Atxondo > 8

1978an Guardia Zibilak hildako
gaztea, biktimen zerrendan

Iurreta > 9

XLII. Kofradi Eguna ospatuko
dute sei kofradiek Laixiarren

Elorrio > 6

Jaien bigarren asteburua sukalki
lehiaketaren bueltan ospatuko dute

ELAk prebarikazioa eta gezurretan ibiltzea leporatu dio udalari

ELA sindikatuak erantzukizun politikoa eskatu die arduradunei, udalaren Enplegu Planean kontratazio ilegala “jakinaren gainean” egiteagatik



Jose Ramon Lasarguren eta Alain Garcia, eguaztenean, ELAren egoitzan.

DURANGO Markel Onaindia “Legezketasunarekin bat ez datorren erabaki bat jakinaren gainean hartu zen, hamahiru langileren kaltetan”. ELA sindi-

katuak prebarikazioa leporatu dio udalari Enplegu Planean jokabideagatik, eta erantzukizun politikoa eskatu ditu. ELAren kritikak Jose Ramon Lasargu-

renek –zerbitzu publikoetako arduraduna– eta Alain Garcia abokatuak zabaldu zituzten, eguaztenean, prentsaren aurrean.

Eusko Jaurlaritzak 6.200 euroko isuna ipini zion udalari, Enplegu Planean “kontratazio ilegala” egiteagatik. Lanbideren 162.000 euroko diru-laguntza jasozuen, eta hamahiru pertsona brigada lanetan ipini zituen, baina Sartu-Zabaltzen Elkartearen bidez kontratatuta. Gainera, sektoreko hitzarmena ezarrita, udaleko beharginei baino soldata txikiagoa ordaindu zieten hamahiru lagunei. ELAren ustez, dirua aurrezteko egin zuten hori, eta, Jaurlaritzaren txostenean, hori egiaztatzen duten aktak daudela esan dute sindikatuko kideek, udaleko batzordeetan arduradun politikoei esandakoak.

Gero, erabakia hartu zenean, langileen ordezkariak ekintza ilegala zela abisu eman zieten udal arduradunei, eta ELAk ere aurretiazko erreklamazio bat aurkeztu zuen. Baina, udalak aurrera egin zuen. EAJk, PSE-EEk eta PPK babestu zuten.

2.550 euro ez, 1.300

Bestalde, udalari gezurretan ibiltzea leporatu dio ELAk. Pilar Riosek (PSE-EE) esan zuen beharginek 2.551 euroko soldata zutela: “Gure bekatu bakarra

epe luzeko hamaika langabek hilean 2.551 euro kobratzea izan da”. ELAkoek azaldu dute ez dela egia, 1.500 euro kobratu dituztela, 1.300 garbi, eta nomina bat erakutsi dute froga lez. Gainera, mingarriak irudituzazkie berba horiek; behar zena baino gutxiago ordaindu arren, “eliteko soldatak” eman izana islatzen dute ELAkoen ustez. “Riosek egindako adierazpenak herritarrak nahasteko dira, eta ez dagozkio ezkertiar bati”.

“Zantzuak” eta eskeak

Bestalde, Lanbideko 162.000 euroez aparte, beste 58.000 euro eman zizkion udalak Sartu-Zabaltzeni, aparteko kostuengatik eta kudeaketagatik. Horietatik 28.000 euro koordinazio lanengatik eman zituzten, eta, ELAren arabera, lan hori udal teknikariak egin zuten. Horregatik, “herri-funtsak bidegabe bideratzearen zantzuak” ikusi ditu sindikatuak, eta dirua bueltatzeko eskatu dio Sartu-Zabaltzeni.

Beharginei zor zaien dirua bueltatzea exijitu du ELAk. Gainera, isuna eta errekurtsioen gastuak politikariak euren politzikotik ordaintzea eskatu dute, diru publikotik barik.

Adinekoen ikastaroetan 560 leku daude aurten

Ikastaroen helburua “zahartze on bat” sustatzea da

DURANGO M. O.

Durango Udalak bultzatzen dituen adinekoentzako ikastaroetan 560 leku egongo dira aurten. Ikastaroen helburua “zahartze on bat” sustatzea da, Pilar Ríos alkateordeak aurkezpenean azaldu duenez.

Bost programatan banatuta eskainiko dituzte ikastaroak, eta, gehienak, zahartze aktiboagaz lotutakoak izango dira. Hauexek dira beste lau adarrak: 80 urtetik gorako autonomia indartzeko ikastaroak, forma-

zioagaz jarraitzeko Esperientzia Institutua, boluntarioentzako Lagunkide, eta menpeko pertsonen zaintzaile direnentzako Zaindu programa. Irailaren 18ra arte egongo da izena emateko aukera.

Deneriko ikastaroak daude aukeran, bakoitzak dauzkan asmo eta gaitasunen arabera. Aurten, teknologia berrien inguruko ikastaroak eman diera garrantzia, gainera. Horiek doan izango dira, eta besteek 6 eta 12 euro arteko prezioa dute.

Tabirako gaztetxeari forma ematen hasi dira gazteak

Eztabaida prozesua ipini zuten martxan zapatuan



Gazteak batzartuta, joan zen zapatuan, Ezkurdin.

DURANGO M. O.

Gaztetxe bihurtzeko asmoz ekainaren 27an Tabiran okupatutako galdategiari forma ematen hasi dira gazteak. *Galdara prozesua* izenekoa ipini dute martxan, proiektua zehazteko helburuz. Adibidez, gaztetxearen izaera, funtzionamendua, eta espazioaren antolaketa zela-koak izan behar diren eztabaidatuko dute. Joan zen zapatuan egin zuten lehenengo batzarra, Ezkurdin, eta 50 bat gazte elkartu ziren.

Hurrengo hitzordua irailaren 19an ipini dute, 17:00etan, Santa Ana plazan. Hirugarren batzarra gaztetxean bertan egingo dute, urriaren 3an, eta urriaren 10eko Gazte Egunean ondorioak aurkeztuko dituzte.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta
Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa:
946 232 523

Publizitatea:
946 217 902
publi@anboto.org

2015eko irailaren 11,
13. urtea - 601. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea Arrinda.

Administrazio burua:
Itziar Belar Zubizarreta.

Administrazioa:
Miren Abasolo Txabarri.

Publizitatea:
Goretti Alonso Armendia,
eta Itxaso Martinez de
Arenaza Yarza.

Erredakzioa:
Aitziber Basauri Gandiaga,
Itsaso Esteban Urriaga,
Joseba Derteano Bilbao,
Markel Onaindia Txabarri,
Amaia Ugalde Begoña.

Maketazioa:
Eider Alberdi Bengoa.

Zuzentzailea:
Mikel Azkarraga Etxegibel.

Laguntzaileak:



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Natalia Zuazua eta Antonio Márquez | Durandog elkarteko kideak |

“Durangoko areto eta eskoletan berbaldiak ematea proposatu dugu udalean”

Durandog elkarteak hezkuntzan egin gura du lan; txakurrentzako hilerri baten proiektua ere badute

DURANGO Markel Onaindia
Duela hiru urtera arte, txakur-
rak ez zituen ikusi ere egin nahi
Antonio Márquezek (Durango,
1967), baina bat etxera eraman,
eta bizitza aldatu zaio. Natalia
Zuazuak (Durango, 1986) ere
lehenengo txakurra du, eta ja-
sotzen duen maitasunaz lilura-
tuta dago. Durandog elkarteko
kideak dira, eta euren asmoen
berri eman dute.

**Abandonatutako txakurrei la-
guntzeko deia egiten zabilzate,
batez ere sare sozialetan.**

Natalia Zuazua: Zonaldean
abandonatuta agertzen diren
txakurrak hartu, edota adopta-
tzeko proiektua da. Gure taldean
etengabe irten dira horrelako
kasuak. Bestalde, Izurtzan txakur
bat erreskatatu genuen. Bikote
nagusi batek urte luzez
lotuta eduki zuen txakurra, eta
ez ziren zaintzeko gai. Euregaz
berba egin ostean, txakurra
eman ziguten, eta Bartzelonan
topatu genion etxea.

Antonio Marquez: Bestalde,
txakurren jabeek laguntzeko
egitasmo bat ere badugu. Krisia-
gaz, jende askok ezin dio txakur-
rari jatekoa edota botika eman.
Jende nagusi batek ezin ditu
atera txakurrak kalera...

**Eta herritarren hezkuntzan ere
murgildu gura duzue, ezta?**

N.Z.: Hezkuntzan lan egin gura
dugu, aberea ez delako jostai-
lua. Herritarrei, txakurra edu-
ki ala ez, txakur bat edukitzea
zer den azaldu nahi diegu, eta
elkarrekin zelan bizi ere bai. Du-
rangoko areto eta eskoletan ber-
baldiak ematea proposatu dugu
udalean. Batzuek arbuioa diete
txakurrei, beste batzuek beldur-
ra... Gehienetan, ezjakintasun-
aren ondorioz. Gizarte orekatu
bat lortzea da gure helburua.

Gizarte orekatu bat?

A. M.: Gauza normala bihurtu
beharko litzateke taberna kan-
poan edo barruan lasai egotea,
alboan txakurra dugula. Bestalde,
txakurra kontrolatzen jakin
behar dugu, ez dugu inor moles-

“

*Agur hotz bat barik,
txakurrei heriotza
duina ematearen
aldekoak gara”*

tatzerik nahi. Txakurren kaken
arazoa ere konpontzea nahi
dugu. Ni ere sutan jartzen naiz
berdegunera joan, eta kakak za-
paltzen ditudanean.

**Txakurrak solte ibiltzeko gune-
tarako akordioa lortu zenuten
udalagaz. Zelan dago gaia?**

N.Z.: Ezer ez edukitzetik hama-
zazpi gune edukitzera pasatu
gara, eta oso harro gaude. Baina
guneak izendatzeko kartelak
hirutan baino ez daude, eta jen-
deak ez daki zein den gunea eta
zein ez. Gainera, hiru guneak
herri kanpoaldean daude. Guz-
tia geratuta dago, eta pena ema-
ten dit. Gauza bat egingo duzula
esaten badidazu, egizu. Guneak
egokitzea falta da, eta Astolako
24 orduko gunean belarra moztu
barik dago uda osoan.

A. M.: Elkarretaratzeak egiten
hasi ginenean, politikariekin
hartu-eman nahiko hotza zen.
Baina, Durangoko txakur bik
iltzez betetako saltxitxak jan
zituztela estatu mailako albiste
bihurtu zenean, gauzak aldatu
egin ziren. Tristeia da, baina on-
do etorri zitzaigun eraso; ondo-
rioz, egileak geu izan ginela ere
entzun behar izan genuen!

**Eraso gehiago egon al da azken
boladan?**

A. M.: Ez. Badirudi egilea apur
bat beldurtu dela. Oso estresaga-
rria izan zen egoera hura. Amyk
bi jan zituen bakarrik, baina, ba-
dakizu zelako kaltea izan zuen
Partxek, hamasei iltze janda?
N.Z.: Abere bati min egiteko ka-
paz den batek, pertsona bati ere
egin diezaiokeela uste dut.

**Txakurrentzako hilerri bat sor-
tzeko asmoa duzue. Zelan dago
proiektua?**



A.M.: Garaiko partikular batek
lursail bat eskaini digu, baina
proiektu hori egin aurretik,
beste lehentasun batzuk ditugu:
bazkideak lortu, dirua lortu...

Hilerria, zergatik?

A. M.: Jende batek, txakurra
hil ostean ere, beragaz egoteko
beharrizana dauka. Hortik da-
tor hilerriaren inguruko *EL Ul-
timo Paseo* proiektua. Gainera,
agur hotz bat barik, txakurrei
heriotza duina ematearen alde-
koak gara. Txakurrak injektzioa
sartuta hiltzearen kontrakoak
gara, itsu edo zahar egon arren
ere, oso larri ez badaude, noski.
N.Z.: Jakitun gara aberea dau-
kagula etxean, baina asko jaso-
tzen dugu eurengandik, eta hori
dena bueltatzeko beharra senti-
tzen dugu.

Zer ematen dizue, bada?

A. M.: Txakurra beti dago po-
zik, eta egun txarra baduzu, zu-
gana etorri, eta animatu egiten
zaitu. Dena da maitasuna, dena
da positiboa.

N.Z.: Txakurrak ez dauka per-
tsonok daukagun gorrotoa, ho-
rixen da duen onena. Haserre edo
errieta egiten badiuzu ere, laster
etorriko da zugana, miazka-
tzera. Asteburuan gurasoekin
uzten badut ere, astelehenean
lehenengo pertsona naiz bera-
rentzat. Guztia ematen dizu, eta
oso polita da.

Inplanteak jarri

eta hurrengo egunean

PROTESI BERRIAREKIN

mastekatu ahal izango duzu

ORAIN PROTESIA BEREHALA KARGATZEN ZAIEN INPLANTEEZ GOZATU AHAL IZANGO DUZU

BETI ZURE KIRURGIAREN SEGURTASUNAREKIN, 1 mm ARTEKO EBAKETAK (3D) EGITEN DITUEN HORTZETAKO 3D ESKANERRARI ESKER

15% -rainoko DESKONTUAK

WEB GUNeko TARIFETAN

Kontsultatu gure tarifak hemen:

www.clinicaekoden.com

* 36 hilabete baino gehiagorako finantzaketarako, banku-finantzaketa kudeatzen dugu.

Arkotza, 4-behea • Durango • T. 94 621 78 22

R.P.S. 44 / 14

Dendetan deskontu eta sorpresak egongo dira gaur, Gau Irekian

Durangoko hogeitendak ateak zabalduko dituzte gaur gauez, 20:00etatik 23:00etara bitartean; bezeroen fidelotasuna eskertu gura dute ekimenagaz



Miren Garrastazu Dendak Bai elkartearen teknikaria, prentsaurrekoaren ostean.

DURANGO Markel Onaindia Dendak Bai elkarteak bultzatuta, Gau Irekiaren hirugarren edizioari ekingo diote gaur, 20:00etatik 23:00etara bitartean. Durangoko hogeitendak parte hartuko dute, eta, gauez zabalik egoteaz aparte, deskontu eta sorpresak eskainiko dituzte. Atean globoak eta alfonbra bat edukiko dituzte parte-hartzaileek, eta bezeroek horren bidez identifikatu ahalko dituzte.

Miren Garrastazu Dendak Bai elkartearen teknikaria eman zion prentsaurrekoaren berri, martitzenean. Bere esanetan, bezeroen fidelotasuna eskertzeko antolatu dute Gau Irekia, “ez da saltzeagatik bakarrik”. Dendetan sorpresak edukiko dituzte herritarrek, txanpain kopak edota opariak, adibidez.

Kultur ekintzak ere bai Gau Irekiak iraun bitartean,

kultur ekintza ugari ere egongo da. Globoflexia egiten duen pailazo bat ibiliko da kaleetatik, eta 20:00etan, Sh'Bam klaseak emango dituzte Open gimnasioetako, Ezkurdin. 20:00etatik 21:00etara ingelesezko ipuin kontalarien saioa eskainiko du Kids&Us akademiak Plateruen plazan. Artekalera musika ekarriko dute Rock Izar eskolak, eta Hemen Shop dendan ere kontzertu bat antolatu dute.

Mugikortasun astea hasiko da hilaren 16an

Duranguesa txirrindulari taldeak jasoko du Mugikortasun Eredugarriaren Sustapenaren saria

DURANGO M.O.

Durangoko Udalak Mugikortasun Jasangarriaren Astea antolatu du, eta hilaren 16tik 22ra bitartean ekintza ugari prestatu dituzte herritarrentzat. Iker Oveja zinegotziak aurkezpenean esan moduan, “herritarrengan jarrera aldatzea sustatzea eta garraio eredu jasangarriago baterantz joatea” dira kanpainaren helburuak.

Eguaztenean, 12:00etan, udaletxean burutuko den ekitaldiagaz hasiko da egitaraua. Bertan, sari bi emango dituzte: Bizikleta

lehia eta artistikoarenean, eta Mugikortasun Eredugarriaren Sustapenaren saria. Azken sari hori Duranguesa txirrindulari taldeak jasoko duela aurreratu zuen Oveja.

Juan Zubiaurre ibili da egitaraua antolatzen, eta, besteak beste, irailaren 19an, 11:30ean hasiko den bizikleta martxa herrikoia aipatu zuen. Egun berean, bigarren eskuko bizikleten azoka egongo da, Ezkurdin.

Bestalde, ikasleekin kontzientiazio saioak garatuko dituzte.



Zubiaurre eta Oveja, eguaztenean, udaletxean.

Lanbideren zerbitzuak herrian jasotzeko aukera aste birik behin

OTXANDIO J.D.

Lanbide enpleguaren gainean eskaintzen dituen zerbitzuak herritarrei hurreratzeko ekimen bat jarri du martxan abuztuan. Europa Institutuaren laguntzagaz, unitate mugikor bi Arabako eta Bizkaiko hainbat herritarra joaten dira, eta herritarrek bertara zuzendu daitezke informazioa jaso, edo dudak argitzeko. Otxandiora aste birik behin etortzen da unitate mugikorra: egunetan, 09:00etatik 11:00etara. Doako zerbitzua da.

Alde batetik, enplegu zentro baten zerbitzua eskaintzen du: formazio, enplegu, edota autoenpleguei buruzko informazioa jaso daiteke, eta nork bere curriculum vitae-a eguneratzeko aukera dago, aholkulari baten laguntzagaz. Orientazio zerbitzua ere eskaintzen dute, aholkulariagaz. Horrela, besteak beste, nork bere enplegu eskaria eguneratu dezake, edo lan elkarrizketetarako zein hautaketa probetarako aholkularitza jaso.

Luhartz, antzerkia eta dantzak jaiei barruan



Mendigain dantza taldeak saioa eskainiko du domekan, Santo Tomasen.

IZURTZA Joseba Derteano

Izurtzako jaiei bigarren asteburuan ere egongo da zerekin gozatua. Esaterako, gaur, 20:00etan, Muxikako andren antzerki taldeak *Errautsetatik* antzezlan eskainiko du. Inkisizio garaian kokaturiko antzezlan da, eta Onintza Enbeita bertsolaria du zuzendari. Edozein injustizia jasaten duten andrei omenaldia egin gura die antzezlanak.

Bihar, tradizioa bihurtu den mendi bizikleta martxa egingo dute. Aurten, 24. aldia beteko du, eta 09:30ean hasiko dute

Izurtzako plazan. Arratsaldeko protagonismoa txapelketek izango dute; igel txapelketak, 18:00etan, eta tortilla txapelketak, 19:00etan. Gualdea Luhartz erromeria taldeak girotuko du.

Domekan, Santo Tomas eguna ospatuko dute izen bereko ermitaren bueltan. Mendigain dantza taldeak saioa eskainiko du eta, ondoren, Miren Amuriza eta Gorka Lazkano bertsotan ariko dira. 17:00etan Argintxun izango den mus txapelketagaz amaituko dituzte aurtengo Izurtzako jaiak.

San Iurgik ehizako paseak zotz egingo ditu irailean eta urrian

IZURTZA J.D.

San Iurgi Ehiza Elkartek ehi-za paseen zozketak egingo ditu datozen asteetan. Irailtik urrira bitarteko paseen zozketarako eskariak irailaren 15era arte aurkeztu daitezke. Ondoren, hilaren 18an, 20:00etan, zozketa orokorra egingo dute Argintxu elkarteak. Egokitutako paseak zozketaren hurrengo zazpi egunen barruan erretiratu behar dira Argintxun: astelehenetik barikura, 19:00etatik 21:00etara. Erretiratu ez diren paseak, eskatzen dituen lehen ehiztariari esleituko dizkiote irailean 28tik aurrera.

Azaroko paseetarako eskariak irailaren 25eko 20:00ak arte egin daitezke. Ondoren, zozketa orokorra urriaren 2an, 20:00etan, egingo dute. Zazpi egun daude paseak erretiratzeko: Argintxun, 19:00etatik 21:00etara. Erretiratu bako paseak urriaren 10etik aurrera eskatu ahalko dira.

Eskaera orriak gasolindegian, herriko tabernan eta Argintxun jaso daitezke.

Ikasleek garraiorako laguntzak jaso ahalko dituzte

MAÑARIA M. O.

Hasi da ikasturtea, eta Mañariko ikasleak ere badoaz eskolara, institutura edo unibertsitatera. Ikasteko, herritik beste nonbaitera mugitu behar izaten dute, eta bigarren hezikuntzatik aurrera ikasten dabilzanek euren esku edukiko dute udalak garraiorako jarritako diru-laguntza jasotzea. Beraz, batxilergoan, lanbide heziketan, edota unibertsitatean ikasten dabilzanek lortu ahalko dute laguntza.

Eskaerak, 14tik 25era

Udalak informatu duenez, irailaren 14an hasiko da garraiorako diru-laguntza eskatzeko epea, eta hilaren 25era arte egongo da horretarako aukera. Ikasleek hainbat dokumentu aurkeztu beharko dituzte udaletxean: nortasun agiriaren fotokopia, ikasketa baimenaren fotokopia, matrikularen ziurtagiria, gastuen ziurtagiria, eta beste instituzio bateko laguntza jasoz gero, horren fotokopia.



**EUSKERAZ
BE BAI!**

ZORNOTZA Udal Euskaltegia

2015-16 IKASTURTEA

Astean 6 ordu, astelehenetik ostegunera (200 ordu)

Astean 3 egun taldean, bakarkako lanarekin eta tutoretzekin (239 ordu)

(LANGABETUEK 10 €)

Aisa (60 ordu) • Etorkinentzako euskara
Dendaketan (60 ordu) • Dendarientzako euskara
Tabernariak (60 ordu) • Ostalarientzako euskara
Guraso taldeak (60 ordu) • Gurasoentzat euskara
Jubilatu taldeak (60 ordu) • Jubilatuentzat euskara

(10 €)

Izen-ematea irailaren 1etik 22ra
Zornotza Udal Euskaltegian

94 6732026

euskaltegia@ametx.eus

San Pedro kalea, 5

Sukalki Eguna eta beste hamaika ekintza, Elorrioko jaiak agurtzeko



Musika eskolako ikasleek jaurti zuten txupinazoa, zapatuan.

ELORRIO **Markel Onaindia**
Ferixa Nausikoak azken txanpan daude, eta, gaurtik domekara bitartean, hamaika ekintza

antolatu dituzte jaiak ondo agurtzeko. Bihar, Sukalki Eguna ospatuko dute elorriarrek, eta, karroza jaitsierako moztorro-

kin aparteko kolorea emango diote herriari.

Sukalkiaren moduan, denboraz eta astiro-astiro hasiko dira

bihar herritarrek giroa berotzen. Goizeko 08:00etan elkartuko dira Aldatsekuan, mahaiak banatu eta lekuak hartzeko. Gero, sukalkia prestatzeari ekingo diote, eguerdirako mahai gainean prest egon ahal izateko.

17:30ean karrozen jaitsiera egingo dute plazaraino, eta Durangoko Batukada Feministagaz burutuko dute ibilbidea. Jaia borobiltzeko, dantza egin ahalgo dute gauez; Gaztetxean DJ-ekin, Urarkan Custom orkestragaz, eta txosnagunean Esne Beltza eta Skakeitan taldeekin.

1.600 lagun bazkarian

Joan zen asteburuan hasi ziren jaiak, eta domekako tradiziozko feriaz aparte, Kuadrilla Eguna izan zen astelehenekoa. 86 kuadrilla batu ziren bazkaltzen, eta guztira 1.600 bat lagunek parte hartu zuten.

Idoia Buruaga alkateak azaldu duenez, jaiak ondo eta lasai joan dira orain arte: "Guk daki-gula, behintzat, ez da gauza txar aipagarriarik gertatu, eta pozik gaude horregatik".

Aste Kulturala ospatuko dute herriko nagusiek

GARAI **M.O.**

Garaiko San Migel nagusien elkarteak Aste Kulturala antolatu du datozen egunetarako. Batez ere, karta jokoek osatuko dute egitaraua, antolatzaileek azaldu dutenaren arabera. Eguaztenean, hilaren 16an, izango da lehenengo ekitaldia. 17:30etik aurrera, briska txapelketan jokatu dute nagusiek. 17an tutean ibiliko dira, eta 18an mus txapelketaren txanda izango da. Gainera, tortilla txapelketa ere egingo dute egun horretan.

Bestalde, nagusien elkarteak ohiturazko bazkaria egingo du, irailaren 29an, San Migel egunez, Herriko tabernan. Azaldu dute irailaren 27a dela izena emateko azken eguna; tabernan bertan eman behar da izena, eta bakoitzak 28 euro ordainduko beharko ditu.

Donibane Lohizune bisitatu gura dute jubilatuek

MALLABIA **J. Guenetxea**

Mallabiko jubilatuen elkarteak irteera antolatu du irailaren 26rako. Goizeko 09:00etan jubilatuen elkartearen aurreko plazan jarri dute hitzordua autobusa hartzeko. Lehenengo geldialdia Donibane Lohizunen egingo dute. Bertako kaleetan zehar ibilaldia egin eta gero, Hondarribira joango dira bazkaltzera. Arratsalde pasa ere hantxe egingo dute.

Maritxu Roteta jubilatuen elkarteko arduradunak azaldu duenez, irteeran parte hartu gura dutenak irailaren 20ra arteko epea izango dute izena emateko. Auzo bakoitzeko arduradunari jakinaraztea nahikoa da ekintza honetan izena eman ahal izateko.

Udalaren ikastaroen izen-ematea hasi da

Urrian abiatuko dituzte udalak eskainiriko ikastaroak

ABADIÑO **I.E.**

Helduentzako mantentze gimnasia ikastaroan izena eman dezakete, irailaren 18ra arte, 55 urtetik gorako abadiñarrek. Traña-Matienako udal bulegoan eta Zelaietako Mediatekan eman daiteke izena, matrikularen 20 euroko prezioa ordainduta. Astelehen eta eguazteneako (09:00etatik 10:00etara) edo martitzen eta eguenetako (09:00etatik 10:00etara, 15:00etatik 16:00etara, edo 16:00etatik 17:00etara) taldeetan eman ahalgo dute parte-hartzaileek izena.

Udalak jakitera eman duenez, 25 lagunek taldea osatuko dute, eta dauden plazarak baino pertsona gehiagok izena eman ezker, zozketa egingo dute.

Bestetik, Abadiñoko Udalak askotariko gaien inguruan antolatzen dituen bestelako ikastaroetan izena emateko aukera ere badago, irailaren 25era arte, Errota kultur etxean zein Udal Mediatekan. Udalaren webgunean (www.abadiño.org) eskuratu daiteke ikastaroei buruzko informazio guztia.

Hainbat kirolekin aritzeko aukera ezezik, sukaldaritza, argazkigintza digitala, dantza, edota margogintza ikasteko aukera ere eskainiko dute. Errotan egingo dute argazkigintza ikastaroa; margogintza eta yoga, Txanportan; gimnasia aerobikoa probalekuan; eta zoomba, areto dantzak eta batuka, Astolako udal igerilekuan.

Gaur deklaratzeko ziren Ziztada guneko gazteek

Usurpazio delitua egozten diete zazpi gazteri

ZORNOTZA **J.D.**

Maiatzean Zornotzako Luis Urrengoetxea kalean lokal bat okupatu ondoren, usurpazio delitua egozten diete zazpi gazteri, eta gaur deklaratzekoak ziren Durangoko epaitegian.

Egoera salatuz, gaur goize-rako kontzentrazioa deitu dute epaitegi aurrean, eta, 20:00etan, manifestazioa abiatuko dute Erreferendum plazatik. Era berean, atzo, deklarazio egunaren

Gaur, 20:00etan, manifestazioa abiatuko dute Zornotzako Erreferendum kalean

bezperan, epaiketaren gastuen ordainketan laguntzeko kontzertua antolatu zuten Ziztada Gune Askean, Iratxe eta Eneko zornotzarren musikagaz.

Okupazioa "zilegi" da

Ziztada Gune Askeko kideek okupazioa "guztiz zilegi" ikusten dutela berretsi dute komunikatu baten bidez, eta azken hiletan hainbat ekintza kultural antolatu dituztela gogoratu dute: "Gure nahia salaketan gainetik bide horretan jarraitzea da".

Okupatutako lokala azken 10 urteetan "abandonatuta" zegoela diote, eta zikin zegoena garbitu, eta egoera onean mantendu dutela, "erortzeko arriskutik libratuz eta bizia emanez".

San Juan auzoa, 20 · Atxondo, Bizkaia
Tel.: 946 582 060 · www.akebasorestaurante.com

akebaso RESTAURANTE
J A T E T X E A

Zatoz gure menuak gozatzera!
Astean zehar menu exekutiboa 29€+BEZa eta asteburuetan 33€+BEZa.

ALKIMAX

Alquilamos soluciones

**HOSTOENTZAKO
HAIZE-MAKINA**



MOTOZERRA



ZULAGAILUA



AREA



**SASIAK GARBITZEKO
MAILU-MAKINA**



BIOBIRRINGAILUA



**ENBORRAK
ZATITZEKO MAKINA**



**ADAR-
BIRINTZAILEA**



**GASOLINAZKO
MOTORDUN AITZURRA**



**BELARRA
MOZTEKO MAKINA**



**LOREZAINZARAKO
TRAKTOREA**



**ZANGA EGITEKO
MAKINA**



Eitua industriagunea, 71C • 48240 BERRIZ (Bizkaia) • 946 824 550 • alkimax@alkimax.net

www.alkimax.net



Biktimen zerrenda luzean Atxondok ere badu zer oroitua

1978an Guardia Zibilak 16 urteko gazte bat hil zuen Arteako industriagunean



Elorrión, gaur egun Montorra deitzen den kalean dago Jose Emilio oroitzeko jarri zuten plaka.

ATXONDO Joseba Derteano Joan zen barikuan, motibazio politikoei eragindako biktimen eta euren memoriaren gaineko topaketa egin zuten Bilbon, eta Iñigo Urkullu lehendakaria 128 alkaterekin batu zen. Tartean, Atxondoko alkatea zegoen. Izan ere, bertan banatutako txostenetan jasotzen ziren 707 biktimen arteko bat Guardia Zibilak 1978an Atxondon hildako José

Emilio Fernández Pérez gaztearen gainekoa zen.

Dabid Cobos alkatea topaketaren gaineko azalpenak eman zituen asteleheneko udalbatzarrean, EAJko Gorka Garate zinegotziak horri buruz galdetu ostean. Cobosek berak kasu hori ez zuela ezagutzen aitortu zuen, eta seguruenik herritar askok ere ez dutela jakingo, batez ere gazteenek.

Txostenak horrela jasotzen du 1978an gertatutakoa. Durangoko Guardia Zibilaren kuartela metrailatu zuten egun berean, José Emilio Fernández Pérez 16 urteko gaztea —iruindarra zen, baina Elorrión bizi zen— Elorriora bidean zihuan lagunekin auto-stop eginda. Auto gidariak ez zuen Guardia Zibilak Arteako industriagunearen inguruan jarritako kontrola ikusi, eta au-

rrera egin zuen. Guardia Zibilak autoa tirokatu, eta Fernandezek zortzi-hamar tiro jaso zituen, debekatutako balak barne. Bertan hil zen. Tiroketa berean, autoan zihozten beste lagun bi zauritu zituzten: Jose Felix Marias Maturanak hiru bala zauri izan zituen eskuin besarean, eta Manuel Luis Cenitagoya 64 urteko auto gidariari hanka bat erabat hautsita geratu zitzaion debekatutako bala leherkor baten ondorioz.

Ez zen biktimaren autopsiarik egon, eta geroko epaiketa, familiaren abokatua aurrean egon gabe eta hari ezer jakinarazi gabe egin zen, txostenak jasotzen duenez.

Urte hartan Elorrión manifestazioa egin zuten gertatutakoak salatzeke eta kale bati Jose Emilioren izena ipini zioten, gaur egun Montorra deitzen den kaleari. Oroigarria han dago oraindik.

Eusko Jaurlaritzak sortutako Balioespen Batzordeak ekainaren 12ko 2012/107 Dekretuaren bidez aldeko irizpena eman zion Atxondoko kasu horri.

Azaroaren 10a biktimen oroimenerako eguna da, eta Bilboko topaketan nork bere herriko biktimak gogoratzeko ekitaldiak egiteko eskatu zuten. Cobosek horrela egiteko asmoa dutela adierazi zuen.

SEI HANKAKO MAHAIA

IDOIA AGORRIA
PSE-EE



"Aylan"

Kalkuluen arabera, 2.000 lagun inguru abiatzen dira egunero, bizimodu hobe baten bila. Gehienek arriskuan jartzen dute beren bizia, eta askok galdu ere egiten dute bidean. Beharbada, azken argazkiek kontzientzia astindu digute, adibidez, Aylan txikiarenak. Baina egoera hori ez da berria, hor dago, eta aspalditik errepikatzen da, egunero; beraz, gure kontzientziek aspaldi jaso behar zuten astindua.

Ez da erraza izena jartzea hainbeste hildakori. Alabaina, aski izan da hedabideek hildako bakar bat, eta hondartzan etzandako haren gorpuaren argazki izugarria ezagutaraztea, gizatasunik gabeko gizarte anestesiatu honen erraiak iraultzeko.

Sozialistok hainbat neurri jarri ditugu mahai gainean, Siriako gerratik eta gatazkan dauden beste herrialde batzuetatik hona iritsitako iheslariak udalerrietan hartzeko. Bestalde, proposamena egin dugu iheslarietako harrera egiten dieten udalerrien sarean gure udalerrria sartzeko, sare horrek udal-baliabideak jarriko baititu beharra duten pertsonen eskura.

Gainera, erakunde arteko plan bat abian jartzea proposatu dugu Siriari laguntza emateko, "krisialdi humanitario" ikaragarri hau arinduko duten hainbat neurriekin. Izan ere, guztien elkarlana behar da, gobernu, udal-, foru- edo autonomia-erakundeena, eta Espainiako nahiz Europako instituzio guztiena, eta, orobat, herritar eta elkarte guztiena. Era berean, behar bezala koordinatu behar dira partikularren eta elkarten ekimenak, eraginkorrak izateko. Eta, horrenbestez, giza krisi honi amaiera emateko.

Olazarko zelaian euren abileziak erakutsiko dituzte 30 zaldunek

Euskadiko Cattle eta Penning txapelketen finalak jokatu dituzte, bihar, 10:00etatik aurrera

ZALDIBAR Itsaso Esteban Irailaren 12an, zapatuan, Zaldibarko Olazar zelaian jokatu dute Euskadiko western txapelketaren finala. Zazpigarren urtea da Euskadiko Cattle eta Team Penning txapelketen finalak Zaldibarren egiten dituztela. Zaldunak nor baino nor gehiago lehiatzen dira, taldeka zein bakarka. Aurten, Bizkaiko,

Arabako, Gipuzkoako eta Gazte-la Leongo 30 bat zaldunek parte hartuko dute Zaldibarko finalen. Antolakuntza lanetan dabilen Igor Egurrolak azpimarratu duenez, tartean, 11 eta 13 urte arteko zaldunek ere bai. "Gero eta gehiago dira parte hartzen duten umeak", dio Egurrolak.

Aurreko urteetan bezala, goizean eta arratsaldean izango

dira saioak. Goizean, 10:00etatik aurrera, Cattle Penning saioa egingo dute: zaldun batek 10 behi gidatzea xede duen proba. Epaileak agintzen duen zenbakidun behiak elkartu, eta itxiturara bideratu behar izaten dituzte parte hartzaileak.

Arratsaldean, taldeka ariko dira, Team Penning modalitatean. Hiru zaldunek 30 behi taldeak gobernatu, epaileak emandako zenbakidunak, eta itxiturara bideratu beharko dituzte.

Azken zazpi urteetan hitzordu hau mantendu izana "oso pozgarria" dela dio Igor Egurrolak: "Zaldibarko Olazar inguruko harezko zorua horrelako probak egiteko oso aproposa delako, eta udalaren laguntasuna ere badugulako".

Gaztetxoendako bertso eskola eskainiko dute

ZALDIBAR I.E.

Hamaika eta hamalau urte arteko zaleei bertso eskolan aritzeko aukera eskainiko diete. Urriaren hasiko da ikastaroa, eta parte hartu gura dutenek, irailaren 22a baino lehen eman behar dute izena, Liburutegian. Apirilean, bertsoaren ikasteko sei orduko saio bi eskaini zuten Zaldibarko Udalak. Bi talde osatu zituzten orduan; 11 eta 14 urte artekoena, eta 15 urtetik gorakoena. Ekimen horri segida emanez ipiniko dute martxan, gaztetxoaren bertso eskola.

hitz

#gomendioak

artekalea, 14 durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda

HELDUENTZAT
X HIL DA
Alaine Agirre (2015)

UME ETA GAZTEENTZAT
1984-KO UDA
Patxi Zubizarreta (2015)

MUSIKA
ANAI ARREBAK
Zorte ona opa dizut (2015)

BODEGUILLA

TRANA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

katerin ardoak

iñaki uribe

saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delicatessena - Ardotea

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

XLII. Kofradi Eguna ospatuko dute domekan iurretako sei kofradiek

Eguraldiak lagundu ezean, Olaburu frontoian ospauko dute eguna kofradiek



Kofradien Batzar Orokorra ez eze, umeentzako jolasak eta bazkaria ere izaten dira Laixiar zelaian.

IURRETA A. Basauri
Urteko kontuak argitzeko tartea hartzen dute irailean Iurretako sei kofradiek (San Marko, Fauste, Goiuri, Santa Maña, Orozketa eta Iurreta). Laixiar zelaian batzen dira horretarako, eta jai giroan elkartzeko ere aprobetxatzen dute. Eguraldiaren menpe izango dira aurtengo honetan. Hartara, euria eginez gero, Olaburu frontoian batuko dira. Horrela azaldu du Bixente Narbaiza Iurretako kofradien lehendakariak.
Mezagaz hasiko dute egitaraua, 12:00etan. Ondoren, Kofradien Batzar Nagusia hasiko dute. Urteko irabazi eta gastuen

berri emango dute bertan. Narbaizak gogoratu du iaz neguan izandako denboraleen eraginez jausitako pista-zatia konpondu egin dutela; baita Laixiarrerako bidea ere. Aurten, gainera, lau urterik behin izaten diren kofradien hauteskundeen gainean ere jardun beharko dute.
Kofradien hauteskundeak
Iurretako sei kofradietako batzarrak lotu beharko dituzte azaroaren amaierarako. Kofradia bakoitzeko ordezkari bik osatzen dute Iurretako Kofradien Batzordea, eta haurteskundeak egingo dituzte hori erabakitzeko: “Batzuek kargua utziko

dute, eta ordezkari berriak aukeratu beharko ditugu”.
Dantzariak eta bertsolariak jardungo dute batzar orokorra amaitzean, eta, ondoren, bazkaltzeko elkartuko dira kofradietatik joango diren iurretarrak. Arratsalderako, berriz, umeentzako jolasak eta erromeria antolatu dituzte.
Eguraldiak eragina izan arren, ehunka lagun batu ohi dira kofradien jai honetan. “Laixiar zelaian izaten denean, jente gehiago hurreratzen da. Hala ere, 200 lagunetik gora batuko gara aurten ere”, gogoratu du Iurretako kofradietako lehendakariak.

Udalbatza errefuxiatuak hartzeko prest

BERRIZ A.U.
Gerran dauden herrietako errefuxiatuei “merezi eta behar duten harrera” emateko konpromisoa hartu du Berrizko udalbatzak, alderdi guztiek aho batez onartutako adierazpenaren bidez. Harrera “eraginkorra eta iraunkorra” izan dadin egingo dute lan, Eusko Jaurlaritzagaz eta EAEko gainerako erakundeekin koordinazioan. Espainiako Gobernuari eta EBri jarrera azkarra eta eraginkorra eskatu diete.
Hasieran, mozio bana aurkeztu behar zuten EAJk eta EH Bilduk, eta azkenean, testu bateratu bat adostu zuten.

‘Berriztarra’ anitzagoa izateko eskatu dute

BERRIZ J.D.
Udalak kaleratzen duen ‘Berriztarra’ aldizkarian aldaketak egiteko premia agertu dute EH Bilduk eta PSE-EEk, osoko bilkuran. Udaleko ekintzen berri ematen alkatea baino ez dela agertzen kritikatu dute, eta, besteak beste, alderdien-tzako espazio bat eskatu dute: “Udalak egiten dituen gauzez gain, herritarrek ezagutu ditzaten alderdiok dauzkagun ikuspuntuak eta eztabaidak”. Herritarren iritziak ere jaso nahi dituzte. Alkatea gaia lantzeko prest agertu da.

> DURANGALDEA ASTEON

Ikasleekin bisita gidatuak Iurretan

IURRETA > Iurretan herriko ondare eta historia ezagutzeko bisita gidatuak egingo dituzte udazkenean ikasleekin. Bibliotekak Iurretako ikastetxeko Lehen Hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailako gazteekin antolatuko ditu bisita horiek, oinez zein autobusez, begiraleen gidaritzapean.

Jabekuntza Ikastaroa Berrizen

BERRIZ > Irailaren 18tik ekainaren 24ra, jabekuntza ikastaroa antolatuko du udalak Iremiñeren lekalean: barikuetan, 16:00etatik 18:00etara. Epealdi berean, emakume etorkinen jabekuntzari bideratutako topaketa programa ere antolatu dute: barikuetan, 10:00etatik 12:00etara Iremiñeren lekalean.

Siria gogoan izan dute Maristetan

DURANGO > Ikasturteari hasiera emateko, Maristak ikastetxeko ikasleek taldeko erronkak garatu dituzte asteon, eta bide batez Aylan Kurdi omen-du dute, joan zen astean Turkiako itsasertzean hilik agertu zen ume siriarra. Janaria garraiatzeko gailu bat asmatu dute sinbolikoki.

Iritzia



astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea
• Nortasun Agiriaren zenbakia

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-
Alderdi, elkarre edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



Gontzal Aizpurua | Zuzenbidearen Euskal Akademiko zuzendaritzakidea. Abokatua | Durango, 1966

> BERBAZ Aitziber Basauri
Euskal Foru Zuzenbide Zibil berria izango da indarrean urriaren 3an. Ekainaren 25ean onartu zuen Legebiltzarrak, eta, berrikuntza nabarmenen artean, auzotasun zibilararen arauketa dugu. Batez ere, Zuzenbidearen Euskal Akademiak, Bizkaiko Abokatuen Elkartek, eta Notario eta Erregistroen elkarteek sustatua da.

Zertara dator legedi berria?
1992an onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Zuzenbide Zibilararen legean atzemandako akatsak, okerrak eta hutsuneak konpontzera, batetik. Bestetik, herritarren eskari, interes eta nahiei erantzutera. Bizkaiko Foru Berritik (1526koa) euskal legegile batek egindako zuzenbide zibilar buruzko lehenengo legea da 92koa, Espainiako Konstituzioan eta Euskal Autonomia Estatutuan aurreikusitako eskumena egikaritzuz onartu zuena Legebiltzarrak. Premiazko eta behin-behineko gaurkotze hori lehenengo pausoa izan zen: gure zuzenbide zibila iraunaraztea. Batez ere, Bizkaiko Foru Zuzenbidean oinarritu eta sakondu zen.

20 urtetik gora joan dira...
Legegileak 1992ko Zuzenbide Zibil hori sakontzeko eta aldatzeko beharra ikusi zuen ia onartu zen une beretik, haren premiazkotasuna eta behin-behinekotasuna aintzat hartuta. Urte guztietan akatsak, okerrak eta hutsuneak nabaritu dira. Gainera, gizartearen eskakizunak bistakoak dira: adibidez, norberaren ondareak aukera askean banatzea bultzatzen duten elkartek sortu dira. 1992ko legedian, zein 2015ekoan, XVI. mendetik datozen erakunde juridikoak arautzen dira.

Gaur egun ulertzen ez direnak.
Testuinguru sozioekonomikoa ez da bera inondik inora. Baina, XV-XVI. mendeetan erabilitako erakunde batzuk, adibidez, eskuordeko bidez egindako testamentua (alkar-poderoso) oso erabilgarria da. Gaur egun ere asko erabiltzen da oinordetza antolatu eta eskuordekoa babesteko. Eztabaida sortu du, berriz, Bizkaiko erakunde berezi eta garrantzitsua den tronkalitateak.

Zein berezitasun du horrek?
Jabetzaren izaera familiarra du oinarri, eta Bizkaiko forudun lurraldeetan aplikatzen da: familiatik datozen ondasun higiezinak familian geratuko

“Bizkaian dagoen dualtasun juridiko zibila desagertuko da”

Euskal Foru Zuzenbide Zibilararen lege berriak gai berriak arautzeko ateak zabalik izango ditu



dira. Egoera sozioekonomiko zehatz bati erantzuteko sortu zen —jabetza edo ustiapena osotasunean eta banandu gabe mantendu eta eskualdatzeko—, baina, oraindik guztiz aplikagarria da. Jabetzaren izaera indibidualistaren aurrean, zergatik ez mantendu familian familiatik datozen ondasun higiezinak?

Hala ere, forudun lurraldeetan baino ezin aplikatu.
Bai. Durangaldea foruduna da, Otxandio, Ermua eta Durangoko azalera gehiena ezik. Adibidez, Aramotz eta San Fausto auzoak, eta, Tabirako zatirik handiena forudunak dira. Foru Zuzenbide Zibila aplikatzen da Durangoko auzo eta kale batzuetan, eta, Zuzenbide Zibil Amonkomuna besteetan. Hiribilduetan lurralde ezarpen eremua ez dago guztiz zehaztuta, gainera.

Nola liteke?
Bizkaian gertatzen den arazoa da hori. XII-XIV. mendeetan Bizkaiko Jaunak hiribilduak sortu zituen (Bilbo, Otxandio, Durango, Gernika...), lurraldean

aplikatzen zen Bizkaiko Foruari desberdina zen beste foru bat emanez: jatorria Gaztelako zuzenbidean duen Logroño forua. Hartara, hiribilduak garatzen joan ahala—gaur egungo zuzenbide komuna— Bizkaiko Foru Zuzenbidearen eremua —lur laua edo elizateena— murrizten joango da. Bien arteko mugak hiribilduetan oraindik ere ez daude argi. Gainera, XIX. mendean eta XX.eko hasieran, hainbat herri anexionatu ziren. Egun, hiribilduetako eta elizateetako bizkaitarrei zuzenbide zibil ezberdinak aplikatzen zaie, dualtasun juridiko horrek suposatzen duen bereizketa ulergaitza oraindik mantentzen da.

Zuzenbide Zibil berriagaz dualtasun hori desagertuko da.
Bai. Lehenengoz Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban lege zibil berdina aplikatuko da. Euskal auzotasun zibila egongo da, hori da aldaketa nabarmenena. Bizkaian, konkretuki, auzotasun zibil bi izatetik, bat izatera pasatuko gara. Hala ere, tokian tokiko erakunde juridiko bereziak

mantenduko dira. Bizkaian, adibidez, Tronkalitatea eta ezkontzaren ondasunak arautzen dituen Foru Komunikazioa.

“**Tronkalitatea berean mantenduko da, muturreko ondorio batzuk zuzenduz**”

Beraz, tronkalitatea bere horretan mantenduko da.
Bai, baina, muturreko ondorioak eragiten zituzten arauak zuzendu dira; adibidez, tronkaleko senideak ez direnen aldeko doako eskualdaketak ez dira guztiz baliogabeak izango, eta tronkaleko ondasunen gaineko ezkontide edo bikoteen eskubideak zabaldu dira. Dena den, ezkontidea edo bikotea babesteko, eskuordeko bidez egindako testamentua ere badago: ezkontideari boterea ematen zaio ondasunak derrigorrezko oinordekoen artean banatzeko. Nahi duen arte ondasunak goza-

tu eta banatzeko eskubidea du, nori eman eta oinordetzatik nor baztertu erabakitzekoa ere bai. Aukera hau Gipuzkoara eta Arabara zabalduko da.

Seniparteak asko aldatu dira.
Derrigorrezko oinordekoei dagokien seniparte heren batera murriztuko da erkidego osoan —4/5 izan da Bizkaiko forudun, Aramaio eta Laudiokoentzat, eta 2/3 besteentzat—. Hori bai, seniparte hori kolektiboak denez, gura lez banatu daiteke derrigorrezko oinordekoen artean, aukeratzen ez direnak azalpenik gabe baztertuz. Aurrekoen seniparte ere desagertuko da.

Zuzenbide Zibilararen Batzorde aholku-emailea ere eratu da.
Ikertu, aldatze proposamenak aurkeztu eta Euskal Zuzenbide Zibila zabaltzeko sortu da. Tradiziotik datozen erakunde juridikoak eguneratu eta zabaldu dira, auzotasun zibil bakarra sortu eta bereizketa handi eta bidebakoak baztertuz. Baina, zuzenbide zibilararen beste eremuetara hedatzeko ateak zabalik daude.

Jon Arzubia, Ibon Berriozabalgoitia, Borja Moronatti, Jokin Alberdi eta Egoitz Uriarte



Ganorabakuek: “Banjoak eta mandolinak beste alaitasun bat ematen diote soinuari”

Durangoko Aliendalde industriaguneko entsegu lokalean elkartu da ANBOTO taldeko hiru kidegaz

> MUSIKA Itsaso Esteban

2014tik diharduzue **Ganorabakuek** taldean?

Borja Moronatti: Bai, urtebete inguru daramagu. Azaroan, Abadiñon, domeka eguerdi baten eskaini genuen gure lehenengo kontzertua.

Nondik datorkizue ikutu zelta, folk horrekiko zaletasuna?

Egoitz Uriarte: Egia da influentzia berriak ditugula, baina ez genuke esango folka denik egiten duguna.

Ibon Berriozabalgoitia: AEB-tako ekialdeko mendialdean sortu zen bluegrass musikaren ukitua dauka gureak. Bizimodu umileko jendeak, Irlandatik edo Eskoziatik joandako jendeak AEBetara eraman zuen musikaren nahasketatik sortutakoa.

E.U.: Orain, guk egiten duguna zehatz zer den geuk ere ez dakigu (barrez).

B.M.: Punketik eta rocketik gatzoz, eta jatorri horren eragina ere badugu.

I.B.: Bluegrassera hurreratu gura dugu. Baina ez gara inongo birtuosak musika jotzen...

Jotzen asko gozatzen duzuela ematen du. Horrela da?

B.M.: Horrela da, bai. Banjoak

eta bandolinak soinuari beste alaitasun bat ematen diotelako beharbada...

Banjoa eta mandolina erabiltzen hasteko pausoa ematea, zelan bururatu zitzaizuen?

E.U.: Silikosos taldea utzi genuenean, *Libok* banjoa zeukan etxean, eta *Zudari* mandolina oparitu zioten. Horrela hasi zen.

I.B.: Gitarragaz alderatuta,

afinazioa eta akordeak nahiko desberdinak dira, eta ikasi egin behar izan dugu.

Urtebeteen asko sortu duzue.

B.M.: Bai, hamabost kanta sortu ditugu urtebeteen, eta oraindik amaitu barik dauzkagu beste hainbat...

Zelako letrak dituzte kantek?

E.U.: Barnean daukaguna atez

ratzen dugu. Denetik dago; jenio txarra, alaitasuna... Bakoitzaren momentuko kezka...

I.B.: Normalean, kritikoak izaten dira letrak; Mañariko harrobiekin, jendearen jarrerekin, elizarekin...

B.M.: Bertsioak dira kantetako bi (Dolly Parton eta 357 Street Band-enak), baina geuk idatzitako letra ipini diegu. Denok idatzi izan dugu kantaren bat. Hasie-

ratik argi eduki duguna, euskaraz idatziko genuela izan da.

Taldeakide guztiek kantatzen duzue Ganorabakuek-en.

I.B.: Bai, bitxia da hori. Ibili garen punk taldeetan ez diogu ahotsari garrantzi handirik eman izan, baina, orain, gehiago lantzen dugu kantaera: bi aho-tsetara ere abesten dugu!

Urtebete da taldea sortu zenuela, baina hainbat kontzertu eskaintzeko aukera eduki duzue. Ondo hartu zaituzte jendeak.

I.B.: Leku askotatik deitu digute jotzeko eskatzen. Zerrenda luzea daukagu, baina oraindik ez ditugu kontzertu denak zehaztu.

B.M.: Lan kontuak direla-eta, ezin izan dugu asko jo. Bost gara, batzuek asteburuetan tabernetan egiten dute lan, eta ez da erraza...

Hainbeste proposamen jasotzeko, zer uste duzue egin zaiola jendeari erakargarri?

I.B.: Entzutera ohituta gauden musika eta guk egiten duguna desberdinak direla. Erabiltzen ditugun instrumentu batzuk ere hemen ez dira ohikoak.

B.M.: Eta musika animosoa dela, jairako aproposa. Martitzenetako entseguetan geu ere jai giroan ibiltzen gara lokalean.

Durungaldeko hainbat jaitan entzun ahalko zaituztegu irail eta urrian, ezta?

E.U.: Bai. Durangoko Goienkaleko jaietan joko dugu; baita Iurretakoetan eta Durangokoetan ere. Irailaren 19an, Arrasateko Elkartasun Egunean ere ariko gara. Datozen lau asteburuetan, jarraian jo ahal izango dugu.

Crowdfunding berezia martxan, dirua biltzeko

Lehenengo diskoa grabatzen dabil boskotea



Diskoaren kopiak ordaintzeko, 125 laguntza-txartelak atera dituzte.

Hilabete bat edo bi barru prest edukiko duten diskoaren kopiak ordaintzeko dirua biltzeko, *crowdfunding* kanpaina berezia abiatu du Ganorabakuek taldeak. Interneten bitartez barik, aurrez aurre eskatu diote jendeari laguntza. 125 laguntza-txartel atera dituzte lehenengo diskoaren kopiak egiteko. Lau euroren truke, diskoa kalean dagoenean ale bana jasoko dute babesleek.

Lokalean dabilta grabazioa egiten, euren martxan. *Egizu zuk zeuk* izan dute beti bizi-filosofia: “Beti ibili gara gure kabuz, diru gutxigaz...”

Aurretik Silikosos eta BEK taldeetan ibilitakoak dira Ganorabakuek taldeko bost lagu-

nak. Punka egiten zutenean baino publiko anitzagoa dute Ganorabakuek taldean dabil-tzanetik: “Zaharrak dantzan, umeak... denetik ikusi dugu publikoan azkenaldian”.

Jende askok esan ei die taldearen izenagaz identifikatuta sentitzen direla: “Zenbat bider esan didaten etxean *ganorabakuei*!, esaten digu jendeak”.

Azkonarra da taldearen irudia, izenaren zentzuagaz ere bat datorrena: “Azkonarra aukeratu dugu, nahiko narrasa eta ganorabakoa delako”.

Hasi zirenetik, boskotea biolin-jole bategaz osatu gura izan dutela azaldu dute. Eta deialdia luzatu dute: biolin-jole bila dabilta Ganorabakuek.

> ERAKUSKETA Itsaso Esteban Irailaren 14an inauguratuko dute *Aldharrikatuz* izenburuko erakusketa, Durangoko San Agustin kulturgunean. Eskulturak eta olerkiak biltzen dituen erakusketa da, euskal preso, iheslari eta deportatuen giza eskubideen aldeko Sare Herriarrak bultzaturikoa.

Zigor Merodio preso bilbotarraren eskulturak dira *Aldharrikatuz* erakusketaren oinarria, eta Alaitz Areitio preso iurretarrak pieza horiei eskainitako bertsoak ere egongo dira erakusketan. Areitioarekin batera, Ion Troitiño preso donostiarrak idatzitako bertsoak ere badaude bilduman. Hiru euskal presoek Espainiako eta Frantziako kartzeletan sortutako lanak dira erakusketakoak.

Irailaren 14an inauguratuko dute 'Aldharrikatuz' erakusketa, Durangoko San Agustin kulturgunean

Teresa Toda kazetariak parte hartuko du, irailaren 14an, 19:00etan, izango den inaugurazio ekitaldian. Irailaren 14tik 20ra, 18:00etatik 20:30era egongo

Presoen eskultura eta olerkiak San Agustineko erakusketan

Alaitz Areitio preso iurretarrak kartzelan idatzitako olerkiak daude tartean



Zigor Merodio preso bilbotarraren eskulturak dira 'Aldharrikatuz' erakusketaren zutabea.

da zabalik, eta 19an eta 20an 12:00etatik 14:00etara ere bai.

Erakusketa ikusgai dagoen egunetan, berbaldi bat eta musika eta poesia emanaldi bat ere izango dira, San Agustin kulturgunean. Irailaren 17an, 19:00etan, *Dispersioa ezagutzen* berbaldia eskainiko dute Duran-


Hiru presok Espainiako eta Frantziako kartzeletan sortutakoak dira erakusketako lanak

goko presoen senideek. Izan ere, dispersio politikoaren amaiera eskatzeko baliatu gura du Sare Herriarrak erakusketa hau.

Irailaren 19an, bestalde, 20:30ean hasita, *Burdin hariak eta plastikozko gorailak* musika eta poesia ikuskizuna eskainiko dute, San Agustinen.

50. Durangoko Azokan parte hartzeko izen-ematea

Irailean eman daiteke izena Azokan parte hartzeko



Edizio berezia izango da aurtengoa; Azokaren 50. urteurrena.

> AZOKA

Irailaren 30era arteko epea daukate Durangoko Azokan parte hartu gura duten argitaletxe, diskoetxe, ekoiztetxe, elkarte eta norbanakoek izena emateko. Azokaren webgunean (www.durangokoazoka.eus helbidean) eman ahalko dute izena.

Azoka kulturgintzaren errealitate berrietara egokitu beharraz ohartuta, iaz lehenengo aldiz egin zuten bezala, 50. Durangoko Azokan ere auto-ekoizpenen gunea egokituko dute. Gainera, erakusmahai erdia kontratatze aukera eskainiko die Gerediaga Elkarteak parte hartu gura duten sortzaileei.

Beste urte batzuetan bezala, bestalde, Durangaldeko sortzaile, elkarte eta erakundeei ezelako kostu barik euren produktuak erakusgai eta salgai

ipintzeko aukera eskainiko die Gerediaga Elkarteak. Durangaldeko argitalpenen erakusmahaiaren euren lana erakutsi gura duten Durangaldeko sortzaileek Gerediaga Elkarteari luzatu beharko diote eskaria.

Azokaren webgunean, www.durangokoazoka.eus helbidean eman ahalko dute sortzaileek izena

Durangoko Azokaren 50. edizioa izango da abenduaren 4tik 8ra Durangoko Landakogunea beteko duena. Gerediaga Elkar-teak ez du oraindik egitaraua jakitera eman, baina urtemuga hori ospatzeko, edizio berezia izango da aurtengoa.

GEURE DURANGALDEA

JOSUNE ARANGUREN

Kultura teknikaria



Etika eta etikoa

Bitxia egin zait egunotan, LOMCE-k filosofia baztertu duen honetan, etikari eta moralari buruzko hainbat aipamen entzutea berri emankizunetan.

Badirudi alor horietako terminoen beharra dugula Siriako errefuxiatuen arazoan erakundeek portaerak zein beharko lukeen erabakitzean, GKEen irizpideak ebaluatzean, edota norbere iritzia finkatze-saiakeran. Ezin, bestalde, rally bateko istripuaren errudunak bilatze sotiletan, argudio desberdinak eman lege juridiko hutsei begira: honek hori beharko luke egin,...

Zintotasuna, zuzentasuna, solidaritatea eta antzekoak lantzen dituzte umeek txikitatik eskolan, taldeka, eta tutoreek gidatuta, euren arteko liskar eta harremanak aztertuz. Nerabezaroa da, ordea, gai horiei ikasleen garapenak ahalbidetzen duen kutsu abstraktoagoa eman, eta etikaren fundamantua jakiteko sasoia.

Gizartean portaera morala ezartzeko adinean, filosofia ikasgaiak ez du, ondorioz, banakakoan bakarrik eragiten, gizarte osoan baizik. Horregatik, suposatzen dut hauxe dela Wert legegilearen asmoa, besteak beste: gizarte arloko ekonomia eta politika gaiak jorratzean, ikasleek, kendutako ikasgaiaren ordean, aberastasunaren banaketaren gaineko gogoeta egitea, edo zientzien arloko biologiaren aurrerabideak beraien ondorio etikoen ikuspuntuez eztabaida kritikoa sustatzea.

Erljio eta sineskeriek bide erraza dute honelakoekin.

<http://josunearanguren.blogspot.com.es/>



Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.net

Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA

EGUNEKO MENUA
ASTELEHENETIK OSTIRALERA



URRIAK 30 / 31
MUSIKA KONTZERTUA

EH EZTANDA!
EH-ko PUNK-OII JAIALDIA

Hiru txerritxoak eta otsoa

Glu Glu produkzioak

Irailaren 20an
12:00etan / 18:00etan

Sanagustinalde, 12
Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango-udala.net

San Agustin KULTUR GUNEA

eskolaava
houetta





OINETAKOAK

Udazkenara gerturatzen ari garen honetan, sandalia eta txankletak gordetzeko unea heldu da. Tenperaturen jaitsierak beste mota bateko oinetakoak eskatzen ditu. Botak zein zapatilak izan, umeak eroso sentitzea izan behar da lehentasuna. Moda-modako oinetakoekin ikasturtea hastera gonbidatzen zaitugu!



Pinkii

Ibaizabal, 6 C - Durango
Tel.: 946 032 329
calzadospinkii@hotmail.es





JANTZIAK

Zeinek esan du udazkenean eta neguan koloreari uko egin behar zaiola? Marra koloretsuek ukitu berezia emango diote ikasturte berriari. Umeek zein gazteek hotzik ez pasatzeko moduko osagarriak ere eskura dituzu.



BOBOLIREN
udazkeneko
BILDUMA BARRIA
EZAGUTU EGIZU

Astarloa 15 - Durango • Tel. 94 623 26 32 • O hiletik 16. tailara arte • www.boboli.es



> ELKARRIZKETA J. Derteano

Rakel Terron basauriarak (1977) psikopedagogia zerbitzua eskaintzen die gurasoei Zelaia-eko eskolan eta Traña-Matienako eskolan zein institutuan. Bost urte dira Zelaia-eko eskolan zerbitzu hori eskaintzen hasi zene-
tik. 14 urtera arteko gaztetxo-
en eta euren gurasoen kasuak eta
kezkak entzunda, konponbide-
rako bidea erakusten saiatzen
da. Ikasturtea laster hasiko da,
eta badaki lehenengo asteetan
telefonoa jo eta jo izango duela.

Laster eskolara buelta dator. Zuretzat lan gaindosia?

Bai niretzat eta bai ikastetxeen-
tzat. Kasu piloa egoten dira, eta
horiek denak aztertu eta sailka-
tu beharra dago. Lehen hilabe-
tean, halako boom bat ematen
da, eta, hileak aurrera joan aha-
la, egoera baretu egiten da. Kasu
denak aztertu ostean, batzuk
zuzenean geuk lantzen ditugu,
eta beste batzuk egokiagoa den
beste zerbitzu mota batera bide-
ratzen ditugu.

**Adinean aurrera joan ahala, gaztetxo-
en arazoak zein gura-
soen kezkak aldatu egiten dira. Badago adin tarteka sailkapen bat egiterik?**

Bost-sei urteko umeekin gu-
rasoek izaten dituzten kezkak
eskolako hartueman sozia-
len ingurukoak izaten dira. Sei-
tik hamabi bat urtera arteko
gaztetxo-
en artean, eskolako
zailtasunei lotutako arazoak na-
gusitzen dira, hau da, arazo pe-
dagogikoak: ulermen arazoak,
dislexia, orientazio arazoak...
hamabi-hamalau urtera arte-
ko tartean, berriro hartueman
arazoak gailentzen dira: ira-
kasle, lagun zein gurasoekiko
hartuemanak, esaterako. Arazo
konkretuetara joanda, iaz, oro
har, atentzio faltaren eta hipe-
raktibitatearen gaineko kasuak
gorantz egin zuten. Hori ere az-
tertzeko gaia da.

**Bost-sei urteko gaztetxo-
en artean, hartueman arazoak nugu-
sizen direla aipatu duzu. Zein
motatakoak izaten dira?**

Batzuk bakartu egiten dira, eta
hartuemanak egiteko ahalmena

**“5-6 eta 12-14 urte
arteko gazteengan
hartueman arazoak
nagusitzen dira; 6-12
artekoengan arazo
pedagogikoak”**

**“Institutuan hastean
gazteek ez dutela
laguntzarik behar uste
izaten da, baina ez da
horrela; komunikazioa
garrantzitsua da”**

galtzen dute. Hainbat arrazoi-
rengatik izan daiteke; esate-
rako, gurasoak banandu os-
tean, egoera berria ez dutelako
oraindik barneratu. Edo klase
barruan egon daiteke sorburua:
adin horietan haserreak egoten
dira umeen artean, eta, “zuk ez
dakizu hau egiten” eta antze-
ra-
koak entzunda, apurka-apurka
taldetik baztertzen joaten dira,
eta bakarrik egoteko joera dute.

**Azken kasu horiek, klase-
ko burlak entzuten dituzten
umeenak, zelan lantzen dituzu
gurasoekin?**

Gurasoei jarraibide batzuk ema-
ten dizkiegu, baina baita irakas-
leei ere. Izan ere, aipatu ditugun
moduko kasuak klasean edo
jolastokian ematen dira, eta, be-
raz, horrelako arazoak klasean
bertan tratatu behar dira. Gu-
rasoei, oro har, seme-alabekin
denbora gehiago emateko esa-
ten diegu. Parkera elkarrekin
jolastera joateko esaten diegu,
edo umea aisialdi talde batean
sartzen saiatu daitezela. Azken
batean, umea besteekin hartue-
manean jartzea da lortu gura
duguna. Batzuetan, gurasoek
hauxe esaten didate: “Ez naiz
umea parkera eramatera ausar-
tzen, ze burla egiten diote, edo jo
egiten dute. Beraz, ez dut erama-
ten”. Hori ez da irtenbidea. Par-
kera joan, eta egoera kudeatzen
saiatu behar da. Kasu horietako
umeek autoestimua baxua izaten
dute, eta etxean geratuta ez da
ezer lortzen.

**Urteak joan ahala, igartzen da
gurasoek umeen heziketa aka-**

“Hasi nintzenean zaila zen gu- lortzea; orain laguntza ia erab-

Rakel Terron psikopedagogoa da, eta Abadiñoko hiru ikastetxetan gurasoen kezkak azter-



Terronek hamaika urte daramatza psikopedagogoa alorrean; Basaurin bizi eta ikasturtea zehar egunero egiten du handik Abadiñorako bi-

**demiko zein emozionalare-
kiko gero eta ardura gehiago
dutela?**

Bai, igartzen da. Nik hamaika
urte daramatzat arlo honetan
lanean, eta gogoan dut hasieran
oso zaila zela gurasoen lagan-
tza jasotzea. Orain, gurasoen
laguntza ia erabatekoa da. Ba-
daude gurasoak dena eskolaren
esku uzten dutenak, baina ez da
ohikoa. Eta eskerrak, ze gura-
soen laguntza barik oso zaila da.
Gaur egun, gurasoak arduratu
egiten dira. Baita irakasleak ere.

**“Guraso batek
laguntza eskatzen
badu, kezkatuta
dagoelako da;
gehienetan erraza da
eurekin lan egitea”**

**“Haur Hezkuntzatik
Lehen Hezkuntzara
salto handia dago.
Gurasoek pazientzia
izan behar dute”**

**Demagun irakasle eta umeen
arteko arazo bat dagoela. Egia
da, sasoi batean, gurasoak ira-
kaslearen alde jartzen zirela,
eta, gaur egun, aldiz, umeen
ikuspegia lehenesten dutela?**

Hori ere egia da. Gehienetan se-
me-alaben alde jartzen dira. Nik
beti esaten diet eskolara joateko,
eta zer gertatu den bertan galde-
tzeko. Joaten dira, eta entzuten
dute irakasleak dioena, baina ez
dakit zein puntutaraino lortzen
duten irakaslearen lekuan jar-
tzea, edo zein puntutaraino saia-

IKASTURTE BERRIRAKO BEHAR
DUZUN MATERIAL GUZTIA

Bixente Kapanaga 10
IURRETA
Tlfnoa: 944023105

www.urkidenda.com

gurasoen laguntza batekoa izaten da"

urtzen eta bideratzen saiatzen da



dea.

tzen diren haren ikuspuntua ulertzen. Normalean, seme-alaben azalean jartzen dira: "Nire umea da-eta", esaten dute. Baina irakaslearen egoera ere ulertu beharra dago; ez daude ume batekin bakarrik, klaseetan ume asko daude euren ardurapean.

Hortxe daukagu kudeatu beharreko beste egoera bat: gurasoak alde batean, eta irakasleak bestean.

Eta ni erdian. Gauza bat argi dago. Arazoak kudeatzerako

orduan, hiru alde daude: gurasoak, irakasleak eta psikopedagogoa. Denen iritzia kontuan hartu beharra dago, eta hiru aldeen arteko lanak etekina izan behar du, umearen hobebetaz. Gauzak horrela planteatzen direnean, gurasoak nahiko ados egoten dira.

Oro har, gurasoak entzun beharrekoa entzun, eta egin beharrekoa egiteko prest egoten dira?

Begira, guraso batek laguntza eskatzen badu, kezkatuta dagoelako da. Beraz, gehienetan eurekin lan egitea erraza da. Baina, beste guraso batzuk, irakasleek niregana etortzeko esan eta esan aritu ostean datoz. Eta, zelanbait esanda, behartuta datozenean, ez da hain erraza. Ez da ohikoa, baina guraso batzuek hagaxka magiko bat dugula uste dute, eta saio bakar batean konpondu gura dituzte arazoak. Batzuetan, saio bat baino gehiago behar da, eta horrelako gurasoekin zaila da lan egitea. Baina, normalean, lehenengo kasuak dira: laguntza eske datozen gurasoak, eta beharrezko laguntza jasotzeko prest daudenak.

Umeen osasun emozionalaz ez arduratzeak arazoak eragin ditzake, baina, gaur egun, ez al doa nagusitzen gehiegizko ardura eta kontrola?

Tira, gurasoek euren seme-alabekiko ardura izatea ona dela uste dute. Esaterako, nik institutuan ere eskaintzen dut zerbitzua, eta gurasoek, sarritan, ez dute jakiten euren seme-alabak emozionalki ondo dauden ala ez; eta emozionalki txarto badaude, akademikoki ere berdinean egotea da normalena. "Gaztetan bazuen guri gauzak kontatzeko konfiantza", esaten didate, "baina, orain, institutuan, ez dute ezer kontatzen". Komunikazioa

ere landu beharra dago, garrantzitsua da.

Gazteei ere kosta egiten zaie laguntza eskatzea?

Bai. Behin institutuan hasita, seme-alabek laguntzarik behar ez dutela uste dute gurasoek, eta hori ez da horrela. Salto handia da, eta laguntza behar dute. Batzuek galduta ikusten dute euren burua, eta ez akademikoki bakarrik, baita emozionalki ere. Jakina, gazteek eurek ez dute onartuko hori horrela denik, eta gurasoei ez diete laguntzarik eskatuko.

Teknologia berriek bizimodua aldatu dute. Sarritan, ez da erraza izaten zertan diren onuragarrak eta zertan ez bereiztea.

Gurasoen ohiko kezka bat da, bai. Gazteak gero eta goizago hasten dira mugikorrek, sare sozialekin... Berrikuntzak ondo daude, baina ondo erabiltzen badira. Ez da ona ume batek arratsalde osoa telebista edo mugikorraren aurrean ematea. Ume horiek bakartu egiten dira.

'Bullying' kasuak adin tarte denetan ematen dira?

Bai, umeagotan zein nagusietan.

Azken urteetan 'bullying' kasuak gora ala behera egin dute? Nik uste dut gutxitu egin direla. Eskoletan gero eta adiago daude horrelako kasuen inguruan.

Umeentzat Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzarako salto konpliatua dela esaten da. Bai. Haur Hezkuntzan txokoak erabiltzen dira, jolas edo gai desberdinei bideratutako txokoak. Haur Hezkuntzarako salto ematean, ez dago txokorik, ikasgaiak daude: matematika, ingelesa... salto handia da. Egun batean, jolasak dira euren egunerokoa, eta hurrengoan ordutegiak, liburuak eta etxeko lanak. Mahai baten inguruan ikusten dute euren burua, eta ingurua ez zaie ezaguna egiten. Aldaketa apurka egiten saiatzen dira eskolak, baina salto handia da. Urte horretan, gurasoek pazientzia izan behar dute umeekin.

Berezitako heziketa, mugagabea eta denentzako aukera bilakatzen dena, bakoitzaren ezaugarriak kontuan izateagatik

Fisioterapia
Jarrera arazoak
Arreta goiztiarra
Trebetasun sozialak
Adimen emozionala
Lengoaia eta komunikazioa
Eskolako laguntza psikoedukatiboa

Askatasun etorbidea, 4 DURANGO - Tel.: 946 071 985 / 672 481 370
eilekecentropsicoeducativo@gmail.com - www.eileke.com

BVRNS ACADEMY

Kalebarria, 44-46 behea
48200 DURANGO
Tel.: 946 203 668
info@bvrnsacademy.com
www.bvrnsacademy.com

- Ingelesa - Frantsesa.
- Jatorrizko irakasle tituludunak.
- Maila guztiak.
- 3 urtetik aurrera.
- Ingeles ikastaroak atzerrian.

PYM'S IDIOMAS

Hutsetik Proficiency mailara arte
Jatorrizko irakasle adituak

matrikula dohainik
www.pymsidiomas.com

pyms@pymsidiomas.com
Tel.: 946 815 677

Cambridge English
Exam Preparation Centre

UDAL EUSKALTEGIAK

2015 / 2016 ikasturtea
Izena emateko epea irailaren 1etik 25era

euskarak batzen gaitu

ASISTENTZIA BEKAK ETA DIRU-LAGUNTZAK LANGABETUENTZAT.

Saibi kalea 10, 3A • 48200 Durango • 946 030 040 • www.durangoeuskaltegia.net

SOINUA MUSIKA IKASTEGIA
Matrikula zabalik!

Estimulazio musikala
4 urtetik aurrera eta talde txikietan

PIANOA, AKORDEOIA, TRIKITIA,
GITARRA, GITARRA ELEKTRIKOA, KORUA

soinua

Kalebarria, 1 - 1 Durango
946 030 338 - soinua@euskalnet.net

Kurutziaga Akademia

Aerografia • Tailurgintza • Marrazkigintza eta pintura • Maketak eta modelismoa

ARTE EDERRAK
Ume eta nagusientzako pintura eta marrazkigintza kurtsoak
MATRIKULA ZABALIK
• Astelehenetik ostiralera
• Goiz eta arratsaldeko ordutegia

Tel.: 94 603 05 27 Informa zaitetz konpromiso gabe

info@academiakurutziaga.com • www.academiakurutziaga.com



Iazko begirale ikastaroko irudi bat.



Astialdiko begirale izateko ikastaroa egiten duten guztiek topaketa egiten dute ikasturtea amaitzeko.

Astialdiko begirale izateko aukera eskainiko dute

Amankomunazgoak antolatu du, eta irailaren 18ra arte eman daiteke izena

► **IKASTAROA** Aitziber Basauri Begirale ikastaroa egiteko aukera eskainiko dute Durangon datorren ikasturte honetan. Durangoko Merindadearen Amankomunazgoak antolatutako ikastaroa Urtxintxa Eskolak emango du, eta zabaldu berri da izena emateko epea. Irailaren 18ra bitartean dago horretarako aukera. Amankomunazgoak Durangon duen egoitzara jo daiteke horretarako. Baita *euskara.mdurango@bizkaia.org* posta elektronikoa edo 946 232 522 telefonoa erabili ere.

Eusko Jaurlaritzak luzatutako titulazio ofiziala lortuko dute urte eta erdiko iraupena duen ikastaroa egiten dutenek: 200 ordu teoriko eta 120 ordu praktikoko egingo dituzte. Asteburuetan izango dira eskolak, hilean birritan, ikasturte guztian zehar. Aipatzekoa da, Amankomunazgoko Euskara Zerbitzuan parte hartzen duten Durangaldeko

bizilagunek doan izango dutela ikastaroa. Baldintza bat bete behar da ikastaroan parte hartzeko: 2015eko abendurako, 18 urte beteta izatea.

Trebakuntza tresnak eskura Astialdian lan egiteko beharrezko trebakuntza tresnak eskaini gura dituzte ikastaroan, Eñaut Aiartzaguena Urtxintxa Eskolako arduradunak azaldu duenez. Horretarako, hainbat gai jorratuko dituzte ikasturteak iraun bitartean: talde dinamikak, psikologia ebolutiboa, soziologia, begirale tipologia, sexualitatea, udalekuak eta kanpalekuak, lehen sorospenei buruzko oinarritzko ezaguera...

Balioetan oinarritutako trebakuntza da Urtxintxa Eskolak eskainitakoa, eta "horretarako, hezkidetzak, kulturartekotasuna, umearen parte hartzea, euskara, eta halako zehar-lerroak jorratuko ditugu", argitu digu

E. Aiartzaguena:
"Astialdia ez da umea zaintzeko denbora bakarrik, heziketarako momentua ere bada"

Astialdian lan egiteko trebakuntza tresnak eskaini gura ditu Urtxintxa Eskolak begirale ikastaroan

Aiartzaguenak. "Balio garrantzitsuak direla uste dugu, eta ikastaro guztian zehar lantzen ditugu; arlo bakoitzean bestelako zehar-lerro zehatzak ere lantzen ditugu". Gaineratu duenez, "kalitatezko hezkuntza eskaintzeko ikastaroa da eskaini gura dena, eta horretarako, beharrezkoak diren zehar-lerroak lantzen ditugu". Begirale ikastaroa



Hainbat gai jorratuko dituzte Urtxintxa Eskolak gidatuko duen ikastaroan.

Euskal Autonomi Erkidegoagaz muga egiten duten beste erkidego batzuetan ere egin daitekeela azaldu du. "Ordu gutxiago egin, titulazioa lortu daiteke. Hala ere, adibidez, euskara ez dute jorratzen".

Heziketarako momentua Astialdia zaindu beharreko tartea dela uste du Aiartzaguenak: "Astialdia ez da umea zaintzeko denbora bakarrik, heziketarako momentua ere badela uste dugu.

Gainera, umea balioetan hezteko gure helburua. Jendarte honetarako, beharrezkoa dela uste dugu".

Lan munduan sartzeko edo udan lan egiteko "aukera one-netariko" bat da astialdiko begirale izateko ikastaroa, Urtxintxako ordezkariak aitortu duen moduan. "Azken urteetan, gainera, gazteak ez eze, helduak ere animatu izan dira ikastaroa egitera. Denetarik izaten da ikastaroetan".

Paper-denda / Kopia-denda

kopilan

Barrenkalea, 8
DURANGO

%15 eko
deskontua

eskolako
materialean

IRAILAREN 19rarte

Ik Iurreta
kopistegia

IMPRESIO DIGITALA
DISEINU GRAFIKOA

ESKOLA MATERIALEAN ESKAINITZA ZABALA

Bidebarrieta, 1 · 48215 IURRETA
T: 946 811 070 · info@iurretakopi.com

“Talde txikietan lan egiteaz gain, ikaslearen beharretara egokitzen gara”

Zientzieskola eta Ikusi eta Ikasi akademiek proiektu berrien aurkezpena egingo dute irailaren 19an.



> HEZKUNTZA Jone Guenetxea ikasle bakoitzaren beharretara egokitzen den formazioa eskaintzen dute Durangoko Ikusi eta Ikasi eta Berrizko Zientzieskola akademiek. Ingelesa, alemana, garapen mentala, eskolaz kanpoko errefortzuak, udako tailerrak...

Zer ikasketa eskaintzen duzue Ikusi eta Ikasin?

Lorea Duñabeitia: 2011n martxan jarritako proiektua da. Maila guztietarako ingeles eskolak, laguntza eskolak, eta zientzia zein letretako ikasgaiak lantzen ditugu. Aleman eskolak ere ematen ditugu; baita itzulpengintza zerbitzua ere. Aurten,

berrikuntza moduan, italiara ere emango dugu. Bereiztasun moduan, ordutegi malguak eskaintzen ditugu erreleboetan dabilzanentzat

Eta Zientzieskolan?

Lorena Egidazu: 2009an eskolarako errefortzu moduan martxan jarri zen proiektua, baina, apurka-apurka, zabaltzen joan da. Horretaz gainera, tailerrak, hitzaldiak, guraso eta umeentzako eskolak, logika lanketa eta ikastaroak on-line ere ematen dira.

Proiektu berriak jarriko dituzue martxan.

L.E.: Proiektu horietako bat

Aloha da. Garapen mentala lantzeko saioak dira, 5 eta 13 urte bitarteko neska-mutilentzat. Helburua garapen mentala modu dibertigarri batean eta jolasen bidez lantzea da. Izan ere, adin horretan, garuneko konexioak egiten diren momenturik inportanteena izaten da. Berriz iaz hasi ginen proiektu honekin, eta aurten, Durangora ere ekarriko dugu. Ezkerreko emisferioa (ahozko komunikazioa, entzumena...) asko lantzen da eskolan, baina eskuinekoa ez (oroimen fotografikoa, artea, irudimena, kontzentrazioa...). Programa honen bidez, abakoa erabiliz, kalkulu matematikoa egiten erakusten diegu. Behin

hori ikasita, abakoa irudi bihurtzen dugu, eta bi emisferioak konektatu egiten ditugu.

Garapen mentalerako bideratutako programa honetan diharduten umeengan zein hobekuntza nabaritu duzu?

L.E.: Kontzentrazioan aurrerapauso handia nabaritzen da. Gainera, zenbakiak ulertzea heldutasunarekin batera doa. Lehen Hezkuntzako lehenengo mailan aldaketa handia dago. Beraz, abakoa ume askori sistema hamartarra lantzeko baliabideak eman dizkie.

Lehen Hezkuntzara arte zelan landu daiteke arlo hau?

L.E. Numicon metodoaren bidez. Oxford Unibertsitateko materiala da, eta matematika lantzeko balio du. Jolasteko materiala da, eta oso interesgarria da 3 eta 5 urtera arteko umeekin lantzeko.

“Umeei irudimena falta zaie; estimulu larregi jasotzen dituzte, eta ez dute irudiak sortzeko beharizanik”

Helduei zuzendutako eskaintzaren artean, Brain Factory proiektua duzue.

L. D.: Neuronak berraktibatze ariketez osatutako programa bat da. Denok dugu garunean biltegi antzeko bat. Erreserba kognitibo hori sasoi onean mantentzea da helburua. 50 urtetik aurrera hasten gara proiektu horrekin.

Euskara arloan ere jardungo duzue.

L. D.: Arratsaldetan ume txikiei bideratuta dago. Tailerrak eta jolasak euskaraz egitea da asmoa. Kasu askotan, gurasoek ez

dakite euskaraz, eta hizkuntza lantzeko beste modu bat eskaini gura dugu. Ludoteka antzeko bat izango liztateke, baina askoz ere egituratuagoa. Asteburuetan ere ekintzaren bat antolatze ko asmoa dugu.

Ingelesa ikasgelatik ateratzeko asmoa ere baduzue.

L.D.: Ingelesa gelan ikasteaz gainera, ekintzaren bat kalean egitea gura nuke. Bizikletan ibili, irteerak egin edo beste hainbat ekintza kultural egin ditzakegu, baina ingelesez.

Asteburuetan zein gai landu gura duzue?

L.D. Asteburuetan *coaching* saioak, jende aurrean zelan berba egin lantzeko teknikak, irakurketa dialogikoa, autoestimua lantzeko tailerrak eta beste hainbat arlo landu gura ditugu.

Gabonetako oporraldirako ere tailerrak prestatu dituzue.

L.E.: Abenduaren 21, 22, 23 eta 28, 29 eta 30 egunetan tailerrak egingo ditugu Berrizen eta Durangon. Udan ere antolatuko ditugu. Matematika eta ingelesa irakasteaz gainera, irudimena ere landuko dugu.

Umeei imaginazioa falta zaiela somatzen duzue?

L.E.: Irakurtzen duzuna ulertzeko, irudimena izatea oso garrantzitsua da. Problema matematiko batean ere beharrezkoa da azaltzen dena irudikatzea. Umeak hain estimulatuta daudenez, ez dute irudiak sortzeko beharizanik. Telebista, Nintendo, mugikorrak, Wii... Ez dira gauza irudiak sortzeko. Eskulanak lantzea, testuak irakurri eta ulertutakoa margotzea... ariketa erabilgarriak dira.

Proiektu berriak noiz aurkeztuko dituzue?

L.D.: Aurkezpena irailaren 19an izango da, zapatuan, Ikusi eta Ikasin, goizeko 11:00etan. Etorri gura dutenei 685 754 299 telefono zenbakira deitzea edo zientzieskola@gmail.com helbidera mezua bidaltzea eskertuko genieke.

IKUSI ETA IKASI AKADEMIA

Kalebarria, 30 behe 2i · DURANGO

Tel.: 685 754 299

ikusietaikasiakademia@gmail.com

www.ikusi-eta-ikasi.com



ZIENTZIESKOLA

Presatxo, 4 · BERRIZ

Tel.: 615 758 254

zientzieskola@gmail.com

www.zientzieskola.blogspot.com



PROIEKTU BERRIAK

- ALOHA
- BRAIN FACTORY
- NUMICON
- EUSKARA LUDIKOA
- TAILERRAK
- INGELESA
- ALEMANA
- ITALIERA



EROSKI
zurekin
www.eroski.es

**igo zaitez
abenturara**
Hasi da eskolarako itzulera

Eskolako
bizkar-zorroa,
denetarik eramateko
estutxearekin.

9,99€

08/20 - 09/23



> AURKEZPENA Itsaso Esteban Iurretako Udalaren babesagaz Ibarretxe kultur etxeak eta Herri Bibliotekak ikasturte berrian eskainiko duten egitarau mardula aurkeztu zuten, atzo, kultur etxean. Izan ere, irailaren 15ean hasiko da ikastaroetan eta askotariko ekimenetan parte hartzeko izen-ematea.

Herri Bibliotekan, adin eta egoera guztietako herritarren irakurzaletasuna bultzatu, eta kultur eta aisialdi nahiak asetzeko pentsaturiko egitarau zabala prestatu dute, ikasturte honetarako ere. “Erronka nagusietako bat Biblioteka inklusiboagoa lortzea da”, azaldu du Ziortza Onaindia arduradunak, “jaioberrietatik hasi eta ehun urte arteko herritarrentzako irakurketa klubak eskaintzea, esaterako”. Helburu horregaz, duela hainbat urtetik martxan dauden Azalerako Ipuinak, Bularretik Mintzora, Haur Literatura Kluba, eta Emakumeen Literatura Klubek martxan jarraituko dute, eta beste irakurzaletalde berri bi osatuko dituzte.

Nobedadeak Bibliotekan

Helduentzako Ingeles eta Frantses Literatura klubak dira Iurretako Bibliotekaren 2015-2016 ikasturterako berritasunetako bat. Onaindiaren berbetan, “hizkuntza horietan idatziriko literatura garaikidea izango dute irakurketa klub horietan ardatza, eta hilerok elkartuko dira”.

Gainera, duela hiru urte martxan ipini zituzten 16 urtetik gorakoentzako ingeles, aleman eta frantses mintzapraktika taldeak ere izango dira ikasturte

Herritar guztien aisialdi eta kultur nahiak asetzera helburu, egitaraua prest, Iurretan

Atzo aurkeztu zuten Iurretako Bibliotekaren eta kultur etxearen ikasturte honetarako eskaintza zabala



Iñaki Totorikaguena, Zorione Fundazuri, Ziortza Onaindia eta Pili Jimenez, ikasturteko egitarauaren aurkezpenean.

honetan, Iurretako Bibliotekan. Mailaren arabera osaturiko taldeetan elkartuko dira, astero.

Biblioteka inklusiboago baterako bidean tematuta, iaz irakurketa errazaren alde egin zuten apustuari jarraipena emango diotela iragarri dute: aurten, dislexia arazoak dituzten haurrak eta adinekoak izango dira programa horren ardatza. Ziortza Onaindiak aurrreratu duenez, bestalde, 50 urtetik gorakoen irakurzaletasu-

na bultzatzea eta etorkizunean eurentzako irakurketa klub bat sortzea da Bibliotekaren erronketako bat.

Doakoak dira Bibliotekan eskaintzen dituzten ekintza denak. Iñaki Totorikaguena alkateak nabarmendu duenez, “hau dena ezinezkoa litzateke udalaren apustua garbia ez balitz”. EAEko Kulturaren Behatokiak emandako datua azpimarratu du alkateak: 5.000 biztanletik beherako beste herrietakoa

baino bi puntu altuagoa da Iurretaren gastu kulturala. “Batez beste, udal aurrekontuen %8,9 bideratzen da Iurretaren tamainako herrietan kulturara, eta %10,6 gurean”.

Ikastaroak: 22 diziplina

Ibarretxe kultur etxean ikasturte honetan eskainiko dituzten ikastaroen berri eman zuen, atzoko agerraldian, Pili Jimenez arduradunak: “22 diziplina desberdinetako tailerrak izango di-

ra aukeran”. Jimenezek azaldu zuen, denora, 300 plaza eskaini zituztela iaz, eta bete egin zirela. Aurten ere horrela izatea espero dute. Prentsaurrekoan emandako datuaren arabera, ikastaroetan parte hartzen dutenen %94 iurretarra da. Bistan da herritarrek harrera ezin hobea egiten diotela eskaintzari.

Aurreko urteetan harrera ona izandako ikastaroez gain, pilates eta umeentzako jolasak ingelesez eskainiko dituzte.

Burgosko musika eta dantza tradizionalak, San Agustinen

Cantollano taldearen emanaldia da kulturgunearen ikasturteko lehenengoa



1990. urtetik, Burgosko folklorea ezagutzera emateko lanetan dihardu zortzikoteak.

> MUSIKA

Gaztelako musika tradizionalaren VII. jaialdia hartuko du, irailaren 12an, 20:00etatik aurrera, Durangoko San Agustin kulturguneak. Palentzia eta Gaztela Leongo Durangoko zentroak antolatutako emanaldia da biharkoa, eta Burgosko Agrupación Cantollano taldea da aurtengo jaialdira gonbidatu dutena. 1990. urtetik, Burgosko kanta, jantzi eta dantza tradizionalak ikertu, bildu eta ezagutarazteko lanetan murgilduta dabilen zortzikotea da Cantollano. Lan horren guztiaren isla dira hamarkada hauetan kaleratu dituzten diskoak.

Biharko hitzordu hori da San Agustin kulturguneak oporretako geldialdiaren ostean hartuko duen lehenengo emanaldia.

Elorrioko liburutegiaren ikasturterako eskaintza

Hiru tailerretan izena emateko epea hasi dute

> IRAKURZALETASUNA

Elorrioko Udal Liburutegiak 2015-2016 ikasturterako eskainiko dituen tailerretan izena emateko epea hasi dute. Adin guztietako herritarren irakurzaletasuna bultzatu guran, doan eskainiko dituzte tailerrak.

Aurreko kurtsoan bezala, jaioberri direnetik hiru urte betetzen dituzten arte, Azalerako Ipuinak tailerra izango dute elorriarrek aukeran. Plaza kopurua mugatua da ekimen honetan, eta urriaren 2ra arte eman ahal da izena. Hamabosteroko saioak izango dira Azalerako Ipuinak tailerrekoak, eta kantuak, ipuin laburrak, hitz-jokoak, olerkiak eta masajeak baliatuko dituzte.

Hiru eta zortzi urte bitarteko haurrentzat ere badago eskain-

tzarik, Elorrioko liburutegian, adin tarte horretako haurren irakurketa kluba ere martxan ipiniko dute eta. Hilean behin, haurrak eta euren gurasoak elkartuko dira, irakurketa klub horretan. Urriaren 8ra arte eman ahal da izena.

Adin guztietako herritarren irakurzaletasuna bultzatu guran, doan eskainiko dituzte tailerrak

Peru Magdalena durangarrak dinamizatuko ditu, bestalde, helduen irakurketa klubak. Euskarazko eta gaztelaniazko irakurgaien inguruan, talde bi osatuko dituzte aurten ere.

OSASUN GIDA



FISIOTERAPIA

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea,
behea eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

Tel.: 944 657 132 - 686 906 374

RPS: 119/13



PSIKOLOGIA

JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz

Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

RPS: 62/11



PEDAGOGIA

UGATZ

**UMEAREN
GARAPENERAKO
ZENTROA**

Laguntza goiztiarra, psikomotrizitatea,
fisioterapia, logopedia

Juan Olazarán, 1 behea
48200 DURANGO

Tel.: 944 668 370 - 615 782 090

RPS: 63/63



PODOLOGIA

**PODOLOGIA
KLINIKA**

**GOIATZ MURUA
PODOLOGOA**

**AINHOA ELORZA
PODOLOGOA**

Kiropodia, onikopatía, alterazio
dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Monagotorre, 4 - behea
48200 DURANGO

Tel.: 946 203 630

RPS: 148/13



ESTETIKA

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticadurango.com

Laser berria:

Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa,
Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...

Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 DURANGO

Tel.: 946 810 387

RPS: 16/09



OPTIKA

keinuu optometria zentroa

Nala Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

- Optometrian teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099

www.keinuoptometrizentroa.com

RPS: 162/13



ODONTOLOGIA

clínica dental hartzklinika

**B. UNAMUNZAGA
E. ETXEBARRIA**

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALIZATUA

Muruetatorre, 2C - behea
48200 DURANGO

uecdental@gmail.com

Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454

RPS: 145/13

J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO

Tel.: 946 812 200

RPS: 112/13



**Profesional
onenak zure
zerbitzura!**

Denek jokatu gura duten Olazar txapelketa eguenean hasiko da

Aurten ere afizionatu mailako pilotaririk onenak Zaldibarren lehiatuko dira



Iaz, lau t'erdian, Bakaikoak irabazi zuen, eta binaka, Agirre-Gorrotxategi bikoteak. Jose Maria Belar

> PILOTA J.Derteano

Beste behin, Olazar pilota txapelketak afizionatu mailako pilotaririk onenak ekarriko ditu Zaldibarko pilotalekura. Denek jokatu gura duten txapelketa da. Antolatzaileen lanik handiena ez da multzoak osatzeko adina pilotari batzea, justu kontrakoa baizik: parte hartu gura dutenen artean aukeraketa egitea. Horretan, Mallabiko Biharko Izarrak txapelketaren antza du. Dudarik barik, Durangaldeko pilota txapelketarik garrantzitsuenak dira, eta Euskal Herriko onenetakoak.

Olazar txapelketak duen maila neurtzeko, parte-hartzaileei erreparatzea besterik ez dago.

Iaz, esaterako, Jokin Altuna eta Iker Irribarri aurrelariak, eta Aitor Irusta atzelaria aritu ziren Zaldibarko txapelketan, eta aurten profesionaletan ari dira.


Txapelketa lau t'erdian eta binaka jokatu dute, kanporaketa sistemaren bidez; 16 pilotari lehenengoan, eta 16 bikote bigarrenen. Durangaldeak hiru ordezkari izango ditu binaka: Igor Azpiri elorriarrak Ander Imazegaz jokatu du; Aitor Elordi mallabiarrak Aitor Gorrotxategigaz, eta Gorka Otaduy berriztarrak Unai Albaradogaz. Otaduy estreinako urtea du txapelketan, eta Elordi bigarrenetza arituko da. Igor Azpirik, aldiz, askotan parte hartu

du, eta lau finalerditara heltzea lortu du.

Zaldia kirol elkarteak txapelketaren antolatzailea. Bikoteak osatzerako orduan, gazteak esperientzia gehiagoko pilotariek elkartzen saiatu dira.

Eguenean lehen jardunaldia

Txapelketako kanporaketak eguenero, 21:30ean, jokatu dituzte. Lehenengo jardunaldia irailaren 17an jokatu dute. Binaka, Otaduy eta Albaradok Lezamako Aurtenetxe-Bilbao bikotearen kontra jokatu dute. Lau t'erdian, Zubizarreta ataundarrak eta Albizu markinarrak neurtuko dituzte indarrak.



Igor Azpiri (Elorrio, 1988)

Binaka arituko da.

“Olazarren finalera heltzea da aurtengo helburua”

Igor Azpirik Olazar txapelketako lau finalerdi jokatu, eta denak galdu ditu. Azkenekoz, iaz gertatu zitzaion, Ander Imaz kide zuela. Aurten, lagun berarekin, hatz puntekin sarritan ukitu duen finala jokatzeko du helburu.

Olazarrek final bat zor dizu.

Egundoko gogoan dut Olazarren finalera arteko pausoa emateko. Lau finalerdi galdu-ta, ematen du koska hori ezin dudala igo. Finaleko egun hori bizitzea gustatuko litzaidake. Horixe da Olazarren falta zaidana, eta horixe da aurtengo helburua: finalera heltzea. Urte batean, eskuetatik txarto egon nintzen, eta besteetan ez genuen gure maila eman.

Azken finalerdia iazko aldi-koa da. Zelan joan zen?

Askogatik galdu genuen: 22-6. Anderrek (Imaz) pilota batzuk galdu, eta konfiantza galdu zuen, eta, tira, ez genuen gure maila eman.

Aurten bikote-lagun bera izango duzu: Ander Imaz. Sarritan jokatu duzu beragaz?

Ez, gutxitan, birritan bakarrik. Iaz Olazar txapelketan, eta, aurten, urtarrilean, Altzako pilota txapelketan. Irabazi egin genuen, gainera.

Zelako pilotaria da Imaz?

Ondo hartzen dugu elkar. Imaz gaur egungo atzelaririk one-

netakoa da afizionatuetako gazteen artean. Eskuma indartsua du, eta ondo dator kit hori aurreko saltsan gustora ibiltzeko. Gainera, kantxan arin ibiltzen da; kantxa asko betetzen du. Aurten, Biharko Izarrak txapelketa irabazi du binaka.

Zelan joan da uda? Askok jokatzen duzu?

Uztailan Euskal Herriko elite mailan azpitzapeldun geratu nintzen. Xabier Erostarbegaz jokatu nuen, eta 22-20 galdu genuen. Ondoren, Añorgako elite mailako txapelketa irabazi nuen, Tabarregaz bikotea osatuta.

Zein sasoi puntutan zaude?

Oraintxe bertan, eskua oso txarto daukat. Udan partidua asko jokatu ditut, eta karga hori igartzen dute eskuek. Baina, hile eta erdian edo, ez dut partidurik jokatu, eta, Olazar hasten denerako, osatzea espero dut. Joko aldetik, oso ondo eta konfiantzagaz nago.

26 urte dituzu. Zelan bizi duzu pilota? Zein unetan zaude?

Orain hiru urte, nahiko pata ibili nintzen; gora heltzea helburu, eta ez duzu pauso hori ematen, eta balio duzula erakutsi behar horrek... Orain, desberdin jokatu du. Gozatzera irteten naiz kantxara, eta ez sufritzera, sasoi batean gertatzen zitzaidan moduan.

Durangok hartuko du aurten Cafes Baqué torneoaren finala

Aste honetan hasi dute txapelketa, eta Durangaldeko lau pilotari dabilta



Urriaren 9an jokatu dute finala Durangoko Ezkurdi Jai Alain. Bizkaiko federazioa

> PILOTA

Asteon hasi dute buruz buruko Cafes Baqué pilota torneo. Aurten, 30. aldia egingo du txapelketak, eta sei jardunaldi izango ditu. Finala Durangoko Ezkurdi Jai Alain pilotalekuan jokatu dute, urriaren 9an.

Urtero legez, kadete eta gazte mailako pilotariei zuzendutako txapelketa da; maila bakoitzean, 16 pilotarik lau multzotan banatuta neurtuko dituzte indarrak. Durangaldeko lau pilotari

daude tartean: gazte mailan, Elorrioko pilota taldeko Gontzal Azkarraga eta Paul Sagasta, eta Zaldibarko taldeko Jon Iparragirre ari dira. Hirurek atzo arratsaldean jokatu zituzten txapelketako partidua. Kadete mailan, berriz, Durangoko pilota taldean dabilen Aingeru Olague-nagak parte hartuko du.

Kanporaketa bidezko sistema darabilen txapelketa da: irabazleak aurrera egingo du, eta galtzailea kanporatuta geratuko da. Sei jardunaldietako bat, azken aurrekoa, Iurretako pilotalekuan jokatu dute, irailaren 22an. Olague-nagak, multzoburua denez, Iurretan jokatu du txapelketako lehenengo partidua.

Iurretako mendi martxak ibilbide berria du aurten

> MENDIA

Zaldai Mendi Taldeak ibilbidea erabat aldatu dio irailaren 19an izango den Iurretako IV. Mendi Martxari. Mugarra mendia inguratuz, Aramotz mendilerrotik izango da, Leungane (1.006 metro) eta Aizkorri (817 metro) mendiak igonda, besteak beste. Martxak 25 kilometro ditu, eta 09:00etan hasiko da Iurretako plazatik. Izen-ematea irailaren 17ko gauerdian amaitzen da www.herrikrosa.eus webgunean (8 euro). Egunean bertan ere egin daiteke (10 euro).

Saskibaloia entrenatzaile izateko prestatzen dabilta gazteak

Tabirakok eta Federazioak bultzatuta, entrenatzen ikasten daude 30 bat gazte



Ikasleak, astelehenean, Jesuitak ikastetxean.

> SASKIBALOA M.O.

Ume eta gazte asko dabilta saskibaloian, eta eskola kirolean indar handienetakoa duen kirola da. Baina, hainbeste jokalariri erakusteko, entrenatzaileak behar dira, eta, batzuetan, horiek topatzeko arazoa egoten da eskoletan edo klubetan. En-

trenatzaileen beharra du, esaterako, Durangoko Tabirako klubak. Bizkaiko Federazioaren laguntzaz, gazteak entrenatzaile izateko trebatzen dituzte, eta horrelako ikastaro bat Durangon garatzen dabilta aurtan.

30 bat gazteko koadrilak parte hartzen du ikastaroan, klase

teoriko eta praktikoak jasotzen. Dagoeneko zortzi bat egun eman dituzte, eta bateren batek "ordu larregi" direla esan arren, esperientzia polita dela diote gehienek. Astelehenean, Jesuitak ikastetxean elkartu ziren klasea hartzeko. Askok badaukate lehendik saskibaloia talde baten

ardura, eta ikastaroagaz euren ezaguera indartu gura dute: "Ia denok daukagu talde bat entrenatzeko, eta astiro-astiro mailaz igotzen joatea da asmoa", esan zuen ikasleetako batek.

Cristina Kruj izan zuten irakasle astelehenean, Taldearen Zuzendaritza arloa ikasteko. Ikastaroaren balioaz berba egin zuen Krujek: "Hezkuntza ga-



CRISTINA KRUIJ

rrantzitsua da, talde bat hartzen duen edozein gazte gutxieneko jakintza batzuk eduki ditzan". Batez ere, goragoko mailatan omen dago entrenatzaile faltaren arazoa: "Saskibaloia indartsu dago, batez ere behe mailatan. Horregatik, eskolek eta klubek entrenatzaileak eskatzen dituzte. Baina, hurrengo mailatan falta da".

Ikastaroa ematen gustura dabil Kruj: "Gustatzen zait gazteak inplikatzeko ikustea; entrenatzaile izatea ez dadila soilik dirua irabazteko izan". Gehiago inplikatzeko eta saskibaloia bizitzeko deia egin die gazteei Krujek.

Maidar Unda Munduko Txapelketan ari da, Las Vegasen

> BORROKA J.D.

Maidar Unda borrokalari otxandiarra AEBetako Las Vegas hirian jokatzeko ari den Munduko Txapelketan parte hartzen ari da. Atzo arratsaldean, Turkiako Yasemin Adar borrokalariaren kontra arituz final zortzirenetan.

Munduko Txapelketan duen helburu nagusia lehenengo bost borrokalarien artean sailkatzea da, horrek zuzenean Rioko Joko Olinpikoetarako sailkapena emango liokeelako. Sailkatzea lortuko balu, bere hirugarren Joko Olinpikoak jokatuko lituzke, Rion. Aurretik, 2008an Pekin, eta 2012an Londresekoetan parte hartu zuen.



Maidar Unda otxandiarra.

Gernika-Zaragoza, goi mailako saskibaloia, bihar, Landakon

Javi Durangoren oroimenezko torneoaren barruan lehiatuko dira



Iaz Perfumeria Avenida taldeak irabazi zuen. Bizkaiko Saskibaloia Federazioa

> SASKIBALOA J.D.

Javi Durangoren oroimenezko torneoaren bigarren aldiak Gernika Bizkaia eta Mann Filter Zaragoza taldeak aurrez aurre jarriko ditu bihar, 18:00etan, Durangoko Landako kiroldegian. Talde biek emakumeen Lehen Mailan jokatzeko dute, Espainia-

Gernikako zein Zaragozako izarrak bertatik bertara ikusteko aukera egongo da bihar, 18:00etatik aurrera

ko ligarik gorenean, eta, aste bi barru, bata besteari aurka hasiko dute liga denboraldia.

Gernikak aurtan egin dituen lau fitxaketak (Gisela Vega, Shanasa Sanders...) bertatik bertara ikusi ahaliko dira. Era berean, berezia izango da Britany Miller amerikarra Zaragozako elastikoagaz ikustea ere, azken urte biak Gernikan eman ostean.

Baqué torneo

Asteburu honetan Baqué Torneo ere jokatu dute Durangon. Zapatuan finalerdiak jokatu dituzte: Tabirako-Baqué eta Azkoitia Azpeitiaren artekoa 15:45ean hasiko da, eta Anglet Cote Basket eta Ventanas Arsan Astilleroren artekoa 20:00etan. Domekan, 12:30ean, finala jokatu dute.

Federazio Kopan abantaila hartu du Amorebietak

> FUTBOLA J.D.

Federazio Koparen lehen kanporaketan, Amorebietak 1-2 irabazi du Zamudiora egindako bisitan. Zamudiok Amorebietak baino maila bat beherago jokatu du, Hirugarren Mailan. Itzuliko partidua irailaren amaieran jokatu dute, Urriksen.

Amorebieta nagusi izan zen partiduan, eta abantaila handiagoa ekartzeko aukerak izan zituen. Juaristik eta Goiriak sartu zituzten Zornotzako taldearen golak. Azken txanpan, Zamudioko Revu jokalariek estutu egin zuen markagailua.

Durungaldeko Baserritarren Elkartea





Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA



UDAKO ARGAZKI LEHIAKETA

anboto 
komunikabideak



**PARTE HARTU UDAKO
ARGAZKI LEHIAKETAN**
Irailaren 18ra arte,
asteburu pasa bi jokoan daude

Informazio gehiago
www.anboto.org webgunean

Afizionatuetako zestalaririk onenak, San Fausto txapelketan

Euskal Herriko eta Kataluniako 22 bikotek parte hartuko dute



Hilabetez astebururo egongo dira partiduak, eta finala San Fausto jaian jokatuko dute.

> ZESTA J.D.

Asteburu honetan hasi eta Durangoko jaletara arte, afizionatu mailako zestalaririk onenak Ezkurdi Jai Alai pilotalekutik igaroko dira. San Fausto txapelketak 32. aldia beteko du aurten, eta Euskal Herriko zein Kataluniako 22 bikotek parte hartuko dute. Zapatuetan, 17:30ean, eta domeketan, 12:00etan jokatuko dituzte partiduak.

Durangoko klubetik bikote bik parte hartuko dute: Egoitz Urrejola-Igor Iturraspe eta Asier Azkarate-Iker Abaz bikoteek. Ez daude irabazteko faboritoen artean, baina joko bolada onean dabilta. Iaz, Ipar Euskal Herriko Hossegor talde-

ko Michael Lesbats eta Pierre Etcheverry bikoteak irabazi zuen torneo, eta aurten txapela defendatuko dute. Seguruenik, iazko finalistak ere etorriko dira: Jokin Arbe eta Jon Zabala. Etortzen badira, iazko zapore gazia kentzen saiatuko dira. Arbe lesionatu egin zen finalean, eta Zabalak ez zuen berak bakarrik zereginik izan Hossegorreko bikotearen aurka. Gernikak bigarren bikoterik indartsuena bidaliko du. Xabier Barandika eta Unai Lekerika munduko txapeldunak ezin izango dira etorri, partiduaren egun berean beste hitzordu bat dutelako Mutrikun, eta horien tokia Xabier Urrutxuak eta Markel Urtubik

